

# Zuzenbidearen Teoria (Galderak)

## 1. Zuzenbidearen ulermena eta zuzenbidearen soziologia

### 0. Azaldu nola definitzen duen MacCormickek zuzenbidea eta zer abantaila daukan bere definizioak

Neil MacCormickek "Institutions of Law" liburua idatzi zuen. Honek zuzenbidea ordenamendu araugile instituzionala bezala ulertzen zuen, hau da, "Institutional normative order": batetik, institutionals kontzeptuak esan nahi du erakundetze maila altua dagoela zuzenbidean beste arau sistemekin konparatuz. Bestetik, "normative"-ek, arau - araukor - araugile - arautzailerik egiten dio erreferentzia eta azkenik, "order"-ek ordenamendu sistemaren antolamenduari egiten dio erreferentzia.

Lehenengo abantaila zuzenbidea estaturik gabe desberdintzen duela da eta bigarrena, instituzionala dela da. Hau da, honek esan nahi du ekonomikoa dela. Honek, motza dela esan nahi du.

### 1. Arau emaileen ikuspegia eta arau erabiltzaileen ikuspegia: azaldu (givers v users)

Arauk sortzen dira, arau emaile batek egiten ditu eta arau jasotzaileek jasotzen dituzte.

Lege emailea, arau emailea, LAW-GIVER, arauak ematen ditu bere testuinguru sozialean, soziopolitikoan arauak daudelako eta pertsonak euren portaera arauen bitartez ordenatzen dutelako, alegia, ez balego arauerabiltzailerik ez legoke araurik. Araua erabiltzen dugunez ARAU-Erabiltzaileak bilakatzen gara LAW-USER.

Legeen kasuan arau emaile talde bat da eta erabiltzaile guztion izenean bere buruari ematen dizkio arauak.

### 2. Arau mota desberdinak daude, juridikoak, politikoak, ... besterik? Aipatu eta azaldu

Askeak garelako uste dugu, baina errealitatean jarduera arauetz osatutako egitura baten barnean bizi garen. Arauek giza portaera gidatzen dute eta espektatiba bat sortzen dute. Badakigu arau batzuk alor praktikoan kokatzen direla, alor araukorrean (etika, moralak, estetika, politika, zuzenbidea...). Baina arau gehiago existitzen dira baita, batzuk existitzen direla jabetzen ez garelarik, hala nola: hizkuntza erregelak (komunikazioa bideratzen dutenak), portaera arauak (ilara bat jarraitzea adibidez), errutinak jarraitu, nabigatzaileak ematen dizkiguten aginduak, sendagilearen edo sukaldeko errezetak...

Hau esanda, arauak nonnahi daude beraz, baina zerk bereizten du aru juridikoa besteengatik? Arau juridikoa hertsakorra, heteronomoa (ez dela autonomoa), negatiboa, hipotetikoa, orokorra eta ziurra (erabilgarritasuna) dela. Arau juridikoa ordenamendu juridikoaren parte da.

### 3. Nola bereizi gatazken konponketa bitarikoak eta hirutarikoak

Gatazkak konpontzeko orduan bi bide aurki ditzakegu: bitarikoak eta hirutarikoak. Bitarikoa izango da gatazka auzilarien artean konpontzen denean beraien kabuz akordio batera iritsiz. Hirutarikoa aldiz, ezinezkoa suertatzen denean gatazka bi auzilarien artean konpontzea eta beraz hirugarren pertsona baten esku hartzea ematen denean. Hirugarren honi dagokionez ezberdina izan daiteke bere esku hartze mailaren arabera. Batetik tartelariak auzilariak adostasun batera iris daitezela laguntzen du baina berak ez du horretarako ahalmenik, bigarrenik arbitroak berak hartzen du erabakia auzilarien arteko adostasuna lortuz, eta azkenik epaileak bere kabuz hartzen du erabakia auzilarietako zer esanik izan gabe.

#### **4. “Zuzenbidean gatazkak ez dira konpontzen” azaldu epailearen erabakiak zer egiten duen gatazkarekin**

Gatazkak justiziarekin zerikusi handia du. Epaileak inpartzialtasunez jokatzeko du, adibidez, arbitro baten akatsa onartuko da, baina baten alde eta bestearen aurka jartzea ez da onartuko; hau da, partzialtasuna ez da onartuko. Beraz, inpartzialtasuna da gatazkak konpontzeko metodoa. Gatazkak ez dira amaitzen, ez dira konpontzen. Gatazkak aldatu egingo dira, gogor izatek beherantz joango da, eraldatu egingo da. Zuzenbideak gatazkari erantzun formal bat ematen dio, baina ez du gatazka konpontzen. Azken erantzun bat ematen du zuzenbidearen izenean, erabaki bat hartuko du, eta erabakiak betearazgarri izateraino indarra hartzen du (etxebizitza bat desjabetzeko erabakia, baina zordunarekin gatazka ez da konpontzen). Soluzioa = soluble = desagertu.

#### **5. Zuzenbidearen funtzioak, nagusiki bi dira, aipatu eta azaldu**

Zuzenbidearen funtzioek esaten dute zertarako den zuzenbidea, zein den zuzenbidearen helburua edo eginbeharra. Bi dira zuzenbidearen funtzioak:

1. Ordena: bakea, oreka, bake soziala helburu duelarik eta modu honetan zuzenbidearen jarduerak horiek lortzera bideratzen dira.
2. Gatazka: sortutako gatazkari irtenbide bat ematea. Izan ere, gatazkarik gabe ez zen zuzenbidea existituko. Gatazkari irtenbide bat emateak ez du esan nahi gatazka konpondu denik, baizik eta eraldatu.

#### **6. Zuzenbidearen aniztasunaren adibide batzuk historian zehar (eman bi gutxienez eta azaldu)**

- Aniztasunaren adibide garbiak atera daitezke historian zehar: Europan aniztasuna zegoen Erdi Aroan: Eliz zuzenbidea, zuzenbide feudala, errege zuzenbidea eta hiribilduen zuzenbidea elkarbizitzen ziren, denak aplikagarriak ziren aldi berean. Arazoa zen nori zein zuzenbide aplikatzea, beraz “status personae”-ren arabera aplikatzen zen, alegia, pertsonaren arabera aplikatuko da. Aniztasun honetan bi botere nagusituko dira: alde batetik, gauza materialetarako koroa eta gauza espiritaletarako eliza zuzenbidea nagusituko da. Beraz, bi botere hauen artean tirabira zegoen. Aniztasun hori gutxiagotuz joango da, erregeak estatua sortuko du eta zuzenbidea errege dekretuek arautuko dute. Errege dekretu horiek ohitura ezberdinak bilduz sortuko da. Gaur egun, estatuak erabakitzen du zer den baliozko zuzenbidea eta zer ez, ondorioz, estatuak aniztasuna ukatzen du.
- Beste adibide nagusia, kolonizazio prozesua da, aro modernoan. Amerikaren kolonizazioa, Ameriketara errege zuzenbidea inposatu zen, amerikarrek badaukate ordea bere zuzenbidea. XIX. mendeko kolonizazio prozesua: prozesua Afrikan hasi zen (kostaldean), ondoren barnealderuntz. Europan potentziak lur afrikarren jabe egin ziren beren administrazioa bertan ezartzeko. Inplantazio progresibo bat gertatuko da, alegia, Afrikarrek beren zuzenbidearekin jarraituko dute nahiz eta europar potentziek beren administrazioa inposatu. Honen ondoren, deskolonizazio prozesua dator. Independentzia prozesu oso luze bat. Kultura aniztasuna oso nabaria denean, batez ere erlijio aniztasuna dagoenean egoera larriagoa da (kora, katolikoak, Budua eta Judutarrak). Adibidez, Indian non gizarte aniztasuna dagoen bakoitzari bere zuzenbidea aplikatuko zaio bere erlijioaren arabera familia zuzenbidea.
- Gaur egun, giza talde ugari bereizten dira, adibidez, etorkinak non euren jatorrizko kulturarekin datozen, eta honek aniztasun berriak sortzen ditu: gizarte baten barruan azpi gizarteak bereizten dira. Aniztasun horri aurre egiteko, aplikatuko den zuzenbide bakarra estatuaren zuzenbidea izango da,

estatuarena ez den guztia ez da zuzenbidea, beste zerbait izango da: izan daiteke morala, ohiturak... Beraz, aniztasuna konponduko da jarrera ukatzaile batekin (Frantzia, Alemania, Espainiaren jarrera).

◦ Kasu paradigmatikoak aniztasunai begira:

- Frantzia: jarrera ukatzailea, zuzenbide bat eta bakarra
  - Turkia: bakoitzak bere zuzenbidea zuen Otomandar inperioan, honen gainberarekin Atatur jarrera nagusitu zen: frantziako ideak zabaldu ziren, zuzenbide bakarra eta kode bakarra ezarriko da.
  - Japon: XIX.mendean enperadoreak erabakitzen du modernizazio prozesua hastea feudalismotik ateratzeko. Kodeak ezarri ziren, zuzenbide aldetik uniformizazioa baina aldi berean, kultura eta ohiturak sustatu ziren.
- Erromatar zuzenbidea ere izan daiteke beste adibide bat. Garai batean Erromatar inperioan ematen zen zuzenbidearen arabera.

Beraz, kodeak uniformizazioaren jarrera dakar eta honek aniztasuna hiltzen du.

## 7. Zer da zuzenbidearen aniztasuna?

Aniztasuna ugaritasunarekin lotzen da. Zuzenbidearen arloan gizarte baten zuzenbide bat baino gehiago egotearekin lotzen da. Estatu bati lehian / indarrez sortzen zaio beste zuzenbide mota bat baina estatu batek bere buruari ez dio zuzenbide bat baino gehiago emango, gaizki ulertuak egon daitezke.

Esan bezala, estatu bati beste zuzenbide bat lehian edo indarrez sortzen bazaio, zein da estatuaren erantzuna egoera horren aurrean? Integratu edo baztertu?

Aniztasunak dio estatu batean zuzenbide mota bat baino gehiago egon daitezkeela, baina egoera zehatz batzuetan ematen da. Hona hemen egoerak:

- Gizartea anitza bada, aniztasun soziala eta kulturala egongo da, horrek aniztasun juridikoa edo zuzenbide aniztasuna egotea eragingo du.
- Estatuaren eraldaketarekin bat datorrena. Ez dauka monopoliorik.
- Porrot baten ondoren edo estatua ez dagoenean bere osotasunean eratu. Herri indigenak adb. Hasieran arau mota desberdinak baina azkenean formaltasuna lortuko du.

India zuzenbidearen aniztasunaren adibidetzat jarriko dugu izan ere, bertan ohitura asko daudenez, zuzenbide bakarrarekin ez da nahikoa eta aniztasuna ematen da. Bakoitzari zuzenbide mota bat aplikatuko zaio status pertsonalaren arabera aplikatuz.

## 8. Max Weber-ek estatuari zer monopolio aitortzen dio?

Max Weberrek estatuari indarraren erabilpenaren monopolioa aitortzen dio. Bere ideia modu honetan garatzen zela egiazta daiteke: Max Weber → estatua → indarraren monopolioa. Estatuak ongizatea bermatzen du eta horretarako gizartean eragin handia dauka. Eragina izatea lortzen du boterearen bidez edo laguntzaz. Azken finean boterea besteetan eragiteko gaitasuna da. Max Weberrek estatua eragina izatea indarraren erabilpenaren bitartez zuela mantentzen zuen.

Historian zehar indarraren edo boterearen adibide agertu dira; hala nola, Errege eta erresumen aldia edo garaia, boterea kontzentratzen zutelarik ia jabego pertsonala bailitzan. Botere guztia kontzentratua, eta boterea indarraren erabilpenaren monopolioa da. Indarra hertsakortasuna da (koerzioa) eta adierazi daiteke gerra egiteko edo pertsonak gobernatzeko, zergatzeko eta zigortzeko.

Baina botere horren legitimazioa edo bidezkotzea non datza? Erdi Aroan kristautasuna zen, Jainkoaren izenean elizaren bitartekaritzaz zilegiztatzen da boterea. Argien Filosofiarekin arrazoiaren izenean egingo da eta Iraultzeekin herriaren, nazioaren izenean gobernatzen da. Teoria demokratikoetan herri subirautearen interpretazio demokratikoetan herria bera da bere burua gobernatzen duena, autodeterminazioaren muina da. Boterea ere bai gizartearena, herritarrek edo hiritarrek egikaritzen dute euren estatuan, beraz Estatu modernoan indarraren monopolioa eta indarraren erabileraren monopolioa dago eta estatuko herritarrek beraiek eratu dute estatua. Eratutako estatua, administrazioak berak dauka boterearen/indarraren giltza, eta bere jarduera eta egintza guztiak zuzenbidearen arabekoak izango dira. Alegia boterea zuzenbideak arautzen du.

### BOTEREA INDARRAREKIN ALDERATUTA ETA BESTEETAN ERAGITEKO MODUAK:

Honek ez du esan nahi beti indarra dagoela baina indarraren erabilpena onartuta egongo da. Indarraren mota desberdinak egon arren, ziegitasuna estatuaren indarrak izango du. Betearazi ditzake sententziak con ayuda de la policia o ejercito, esto llevado a un extremo es violencia. Atxiloketa indarraren erabilpena da. Autodefentsa ez bada legala, indarra / biolentzia izango da. Estatuak indarraren monopolioa dauka. Honela boterea = indarra ulertzen dugu. Ematen du indarra ejertzitoetan, espetxeetan eta polizian dagoela baina estatua da indarra martxan jartzen duena. Ez dugu beti indarra erabili behar besteengan eragina izateko. Ideologia, sinesmenak, propaganda, iragarkien logika... persuaditzen dute ere eta guregan eragina izatea iristen dira. Lehen esaten zen laugarren boterea prentsa zela.

### **9. Zeintzuk dira agintearen bidezkotze hiru motak Weberren arabera? Azaldu hiruak**

Max Weber-ek hiru bidezkotze mota bereziten zituen: karismatikoa / tradizionala / errazional- burokratikoa.

Hiru eredu hauek batzutan historikoki ulertzen dira gaindituko liratekeen epe historiko balira, eta historian aurrerakuntza egongo balitz (aurrerapen teoria historizistak) baina ez da horrela ulertu behar, hiru ereduak une historiko ezberdinetan azaltzen dira eta konbinatzen dira boterea bidezkotuz.

Hiru legitimazio aukera:

1. Karisma - erakartzen daki, obeditzen diogu. Obama, Iglesias, Trump, Aita Santua, Hitler, Doloren Ibarurri. Por carisma se pueden bilduar todos los poderes en una persona.
2. Tradizioa - hacer algo de una manera porque siempre se ha hecho así. Askotan gauzak justifikatzeko tradizioa jotzen dugu esplikazio eske naturala izango balitz bezala.
3. Arrazoiak - arrazoi burokratiko bat sortzen da, estatuak antolatzeke administrazioa sortu eta burokrazia. Gaur egun burokrazia da nagusia, honi esker jendea j zu sinistu eta zuk jendea konbentzitu. Karisma osagarria da. Karisma izan dezakezu arrazoiak izan gabe baina arrazoiak baduzu jendea konbentzitzen duzu.

Baina, amaitzeko, botere desberdinak daude eta ez bakarrik zuzenbidezkoa-juridikoa, beste moduan esateko boterearen adierazpen desberdinak: politikoa, mediatikoa, ekonomikoa, finantzaria, komertziala edo

merkataria, militarra,, sinbolikoa, erlijiosoa ... eta dimentsio izari edo prisma desberdinak erabili ditzakegu boterea ulertzeko: adina, generoa (sexoa), klasea edo statusa: patriarkadoa, gerontokrazia, eliteak (timokrazia). Koertzioa, hertsakortauna ez da beti indar fisikoa, boterea besteengan eragiteko gaitasuna baita.

Horretarako batzuetan Estatuan eta zuzenbidean erreparatzen dugu, alegia zigortzeko gaitasuna, baina agintzea baino gehiago arautzea da boterea, alegia normaltzea, normal egitea, eta zigortzea baino gehiago kontrolatzea da Foucault) Honi gobernutasuna eta disziplina esaten zaio, menpekotze formak baino askoz ere sutilagoa da, mikro-botereak, eta estatutik haratago doa, bio-boterea, bizitzaren gainekoak, ekonomia politikoarenak. Boterearen teknologia bat ikusten du Michel Foucault-ek, gobernua, biztanlegoa, ekonomia eta gorputza normalizatu egiten dituen. Aztertu behar duguna da hezkuntza erakundeak, segurtasun aparatoa, ejerzitoa, polizia, espetxeak, baina baita mass media, IKTak, erlijio- elizak, kirol eta aisealdi taldeak, familia bera, etab

### **10. Europar Estatu gaurkidea (XXI. mendekoa) nola aldatu den zuzenbidearekiko? Beste hitzetan esanda zer suposatzen du Europar Batasuneko kide izatea?**

Estatuak soberania konpartitzen hasten dira, eta azkeneko hitza galtzen hasten da bere zuzenbidearen inguruan, adibidez giza eskubideena, edo europar batasuneko gaitan bere zuzenbidea beste instantzietan kontrolatuko da. Beraz, estatuak zuen monopolio hori konpartitzera behartuta dago, ez badu nahi europatik kanpo. Zentzu horretan estatuaren figurak aldaketa handia jasan du.

### **11. Iusnaturalismoaren eta iuspositibismoaren arteko bereizketa.**

Iusnaturalismoaren eta iuspositibismoaren arteko polemika zaharra zuzenbidearen eta moralaren arteko harremanen inguruan kokatzen da. Iusnaturalismoak zuzenbideak moralarekin duen barne-lotura aitortzen duen bitartean, iuspositibismoak zuzenbidearen eta moralaren arteko konexio hori ukatu egiten du.

Positibismoak ez dio erantzuten zuzenbidea zer izan behar lukeenaren galderari, baizik eta zuzenbidea zer den. Dakigunez, iusnaturalismoarentzako ez dira zuzenbidea eta moralak bereizi behar, finean, zuzenbidea zuzenbide delako moralak delako eta bestela ez litzateke zuzenbidea izango. Positibismoak, berriz, moralak eta zuzenbidea bereizi daitezkeela dio, ez ditu noski guztiz banandurik adierazten, baina ez du zuzenbidea azaltzen irizpide moralak erabilita; hau da, iuspositibismoak printzipio fakultatiboak soilik erabiliko ditu zuzenbidea definitzerakoan inongo baldintza boralik gabe.

Horrez gain, iusnaturalistentzako tresna metodologia dedukzioa da: arau edo printzipio orokor bat ezarri eta bertatik joz konkretuagoak diren printzipioak ondorioztatu. Positibistek, ordea, indukzioa.

### **12. Justiziaren kontzeptio ordainkaria eta banatzailea nola bereizi? azaldu**

Hauk justiziaren kontzeptuaren kontzeptio desberdinak dira.

Kontzeptio ordainkariaren arabera, bakoitzari berea dena eman behar zaio, hau da, batek duen eskubidean oinarritzen da. Merituak, leinuak, beharrak (bakoitzak definituta) edo beharrak (objektiboki definituta).

Ordainkariatz gain badira beste kontzeptu batzuk justiziaren inguruan, adibidez Justizia banatzailearen kontzeptua. Banatzailearen arabera, bakoitzak merezi edo behar duena jasoko du, dena delakoa izanda behar edo meritu honen arrazoia. Ekonomian oso garrantzitsua: nola banatu behar diren baliabide eskasak? hemen berriro ere kontzeptio desberdinak topa ditzakegu: beharra, merituak, jabetza titulua, efikazia handiena lortzeko... etab.

Prozedurazko justizia da beste kontzeptu bat eta hemen ere bai kontzepzio desberdinak azalduko dira: justizia aurkaria, justizia gidatua, kadiren justizia,...

Kontzeptu hauek aplika daitezke gizatalde (erkidego edo komunitate) batean, jendarte edo gizarte batean, edo mundu mailan, globalean, Hauek eskalako dimentsioak lirateke: lokala versus globala.

### **13. Positibismo juridikoaren postuluak: gutxienez bi ideia nagusi azaldu**

Zuzenbidea izango da soilik Zuzenbide positiboa, hau da, politikoki subiranoa den autoritateak emandako Zuzenbidea. Doktrina iuspositibista oso konplexua da eta logikoa denez denborarekin batera garatuz joan da. Gaur eguneko positibismoak eta XIX. Mendeko positibismoak ez dituzte ezaugarri berdinak izango, baina horretaz gain esan behar dugu autore iuspositibista guztiek ez dituztela iuspositibismoak dituen postulu guztiak eta berdinak defendatzen. positibismo juridikoaren ezaugarri batzuk:

BOBBIO-ren arabera, (1993: 141-2), positibismo juridikoari buruz hitz egiteak sei kontzepzio edo azpi-teoriei buruz hitz egiteak suposatzen du:

- Zuzenbidearen hertsapenaren teoria
- Zuzenbidearen teoria legegilea
- Zuzenbidearen aginduzko teoria
- Ordenamendu juridikoaren koherentziari buruzko teoria
- Ordenamendu juridikoaren osotasunari buruzko teoria
- Zuzenbideren interpretazio logikoa

Aipatutako sei teoria horietatik lehenengo hirurak gaur egun arte irauten duten bitartean, azkeneko hirurak zalantzan jarri izan ziren iuspositibisten artean ere.

### **14. Zuzenbide naturalaren ideia Nagusia: zertan datza iusnaturalismoa?**

Zuzenbide naturala ez da egiazko zuzenbide, ez behintzat guk erabiltzen dugun "zuzenbide" hitzaren esanahia kontuan hartuta. Azken honen bidez, zuzenbidea zentzumenen bidez hauteman daitekeen errealitate sozial eta historikoa da. Zuzenbide naturala moralaren eta zuzenbidearen teoria edo doktrina da. Zuzenbide naturaleko arauak juridikoak dira, sistema juridiko positibo baten baitan kokatzen ez diren arren. Derrigorrezkoak dira zuzenbide sortzaileentzako, baita gainerako subjektu juridikoentzako ere. Zuzenbide naturala ideala da, mundu metafisikoan existitzen den justizia ideal gisa agertzen den heinean. Horrez gain, zuzenbide naturala moralaren teoria gisa agertzen da eta jakinarazten du justizia ideal jakin bat gauzatzeko gizakiaren portaerak nolakoa izan behar duen. Moral hau aldaezina eta iraunkorra da.

### **15. Guda justuaren ideia historian zehar**

Guda justua historian zehar erlijioarekin lotuta dago: gurutzadak esate baterako, edo yihad- ak egiten duen Koran, musulmanen liburu santuaren interpretazio batzuen arabera.

Gaur egun guda justuaren adierazpen nagusia eskusartze gizakioa edo interbentzio humanitarioa da, eta azken urteotan abusatua edo muturrera eramana izateko arriskua du (Giza Eskubideen aitzakian, mundu mailako potentzia batek estatu "maltzurra"ren aurka egiten duenean (rogue states) edo estatu-porrot (failed

states) direnetan sartzen denean krisi humanitario bat dagoenean (aldaketa klimatikoaren ondorioz edo genozidio baten aurrean). Oso konplexua da gaia, eta delikatuia. Horren alternatiba nagusia erreziprozitatea da: nazioarteko harremanetan izango litzateke justizia ordainkariaren pareko: estatu batek bestearekiko tratatu berdina bilatzen duena, eta horren adiera nazioarteko tratatuetan most favoured nation edo nazio hobestuenaren tratua. Jakina, nazioarteko mailan justizia banatzailea zaila da oso, Rawls saiatu da bere Justiziaren Teoriaren (A Theory of Justice) funtsa gizartetik nazioartekora eramanez (The Law of Peoples), baina arlo honetan gizartean estatu garatu den bezala ez bada mundu mailako gobernuak zabalitzen, nekez gauzatuko da.

## **16. Errealismo juridikoa nola kokatzen da iuspositibismoaren eta iusnaturalismoaren arteko eztabaidan?**

### **2. Arau Juridikoa eta Ordenamendu Juridikoa**

#### **17. Arau guztien hiru osagaiak – (arau sozialak ere) azaldu**

Arau guztiek hiru osagai dituzte: Lehena, arauak giza portaera jarraitzen dutela, bigarrena norbaitek araua jarraitzen ez badu honek kritika dakarrela eta azkenik kritika hori legitimoa dela, zilegia dela.

#### **18. Zer esan nahi du arauarekiko kritika soziala bidezkotzat jotzea?**

Arauak giza portaera gidatzen du eta espektatiba bat sortzen du ea nola portatu behar garen gu eta besteak. Espektatiba hau hausten denean kritikatu egiten da, berezko portaeraren arabera ez denean jokatzeko. Kritika hau zilegitzat jotzen da, legitimoa da. Zilegitzat jotzen bada, araua berretsi egiten da, eta arauaren haustura (ez betetzea) egotean kritikarik ez bada sortzen, araua aldatu egin daiteke.

Beraz, esan bezala, arauarekiko kritika soziala bidezkotzat jotzen bada, ezarritako araua onetsi egingo da, gizarteak berak onartu egingo du araua.

#### **19. Zeintzuk dira arauarekiko jarrera sozialak (5 dira) eta zein jarrera behar da zuzenbideak funtzionatzeko?**

1. Arauak beti justuak dira eta bete egin behar dira
2. Arauak ez dira beti justuak baina bete egin behar dira
3. Komeni denaren arabera bete behar dira arauak. Adibidez, urratu egin badaiteke santziora sahistuz urratu egingo da.
4. Arau batzuk onartezinak dira eta aurre egin behar zaie (desobedientzia zibila)
5. Arau denak txarrak dira.

Zuzenbideak funtzionatu ahal izateko lehen eta bigarren jarrerak dira beharrezkoak. Baina beti ere, zuzenbideak zuzen eta justua izatea edo nahi izana eduki beharra du. Justua izatea nahia ez bada, ez da zuzenbidea zinismoa baizik.

#### **19. Norm-giver v norm-user: araugintza komunikazio bezala**

Zuzenbideak beti justua izan nahi du, zeren eta ez badu pretentsiorik justua izateko, ez da zuzenbidea izango. Zuzenbidearen funtzioa arauak egitea eta egindako arauarekin sortzen diren gatazkak konpontzea da. Hainbat portaera edo jarrera hartu daitezke arauarekiko:

- Araua ona da, hau da, justua
- Arau guztiak txarrak dira
- Araua onartu egiten da baina txarrak diren arau batzuk egon daitezke
- Arau guztiak ez dira txarrak, baina asko bai eta hauei aurre egingo zaie (desobedientzia zibila)
- Araua bete egiten da bakarrik santzioaren beldur delako. Baina urratu egin badaiteke santzioa saihestuz, urratu egingo da.

Zuzenbideak funtziona dezan, honek jarrera inpartzial bat guztiz beharrezkoa da, justua izatea. Bakoitzari berea eman, bakoitzari dagokiona, behar duena. Banatu egin beharadago eskasa dena denen artean. Honek injustizia asko saihestuko ditu, kritikak eragotziz horrela.

## **20. Xedapenak eta arauak bereizten: nola bereizi?**

Arau juridikoa konstrukzioa da, erabili egiten da. Xedatzen da idatzia dagoen araua eta hortik erabiliko dugu araua. Araugintza komunikazio prozesu normatibo bat da, bertan araugilea (hau da, igorlea eta mezua-araua-) eta araujasotzailea egongo dira. Prozesu hau zuzenbidean oso instituzionalizatua dago. Beraz, ez badago erabiltzailerik ez dago araurik, nahiz eta arauemailea oso boteretsua izan.

Laburbilduz, esan daiteke Xedapena idatzia dagoen hori dela eta araua xedapen horren interpretazioa dela araua. Xedapen batetik, arau bat baina gehiago atera daitezkeela esango genuke.

## **21. Xedapenak ezarriak dira, arauak birreraikiak. Azaldu zer esan nahi duen honek?**

Xedapenak botere legegileak ordenamendu juridikoan ezartzen dituenean, behin ezarrita horrela mantentzen dira botere legegile berak aldatu edo ezabatu arte. Araua ordea, konstrukzio bat da, ez dago guztiz ezarria xedapenen antzera.

Araua juridikoa konstrukzio bat da, ez dago guztiz emana, testu juridikoetatik landu egin behar da. Xedapen batetik araua atera behar izango da. Orduan, araua ateratzeko, xedapen guztiak batu egin behar dira, hemendik aterako da araua. Ohituretan portaeraren errepikapena topatuko dugu, beraz, portaera honen atzetik araua dagoela esan daiteke. Printzipioak ideiak direnez, ideia horietatik arauak atera beharko dira.

Arauak, xedapenen interpretazioak izanik, xedapenak interpretatzen ditugun bakoitzean berreraikitzen ditugu. Izan ere, xedapen batek testuinguru batean esanahi bat izan dezake, eta beste testuinguru batean berriz, guztiz esanahi desberdina; hau da momentuaren arabera arau desberdinak isla ditzakete. Ondorioz, berreraikiak egiten direla esan dezakegu, xedapenak berriz ezarriak dauden bitartean.

Arauak esanahiak dira eta horregatik esaten da arauak ez direla errealtatean existitzen. Baina lehen esan dugun bezala, normalean juristek ez dute bereizketa hau egiten, horientzat arauak eta xedapenak gauza bera dira. Hau praktikan arriskutsua izan daiteke, juristentzat xedapen bakoitzak arau bat islatzen du, baina hau badakigu ez dela horrela, legegileak sortu duen xedapena, eta interpretazioaren bidez lortutako arauak ezberdinak izan daitezkeelako.

Ikusten dugunez, Zuzenbidean oso garrantzitsua da interpretazioaren gaia: Xedapen batek, momentu zehatz batetan edo testuinguru batetan esanahi bat izan dezake, eta xedapen bera, aldatu gabe, beste momentu batetan edo beste testuinguru batetan esanahi ezberdina izan dezake, hau da, momentu batetan arau bat eta



beste baten beste arau bat islada dezake. Bireraikipenak egiten direla esan dezakegu ondorioz, xedapenak ezarriak daudela esan dezakegun bitartean.

## **22. Iturrien eta arauen arteko erlazioak**

Lehenik eta behin, iturritik xedapena sortzen da eta ondoren, xedapenari esanahia ematerakoan araua ateratzen da. Hortaz, zeharka arauak iturrietatik datozela esan dezakegu. Esate baterako, ohitura iturria da, eta ekintza bat behin eta berriz errepikatzen denean jokaera horri buruzko araua sortzen da.

*Sarritan prozedura legegilearen emaitza arau multzo bat bezala aurkezten da. Beste modu batetara esanda: esan ohi da, autoritate arauemaileak arauak sortzen dituztela. Hala ere, araua interpretazioaren ondoren xedapen bati egozten zaion esanahia bezala definitzen badugu, beharrezkoa da onartzea jarduera legegilearen emaitza xedapenak direla eta ez arauak. Zehatzago esanda, prozedura horretako emaitza zuzenbide iturri zehatz batetako dokumentu arauemaileak dira, kategoria horrek dokumentu horren parte diren xedapen guztien interpretaziotik eratorritako arauen erregimen juridikoa ezarriko duelarik. Ukaezina da edozein autoritate arauemailek helburu bezala, jasotzaileen jardueran eragin izatea izango duela, jasotzaileen portaera arau horretan preskribatutakoaren arabera izan dadin. Baina "helburu arauemaile" hura xedapenen bidez aditzera ematen da soilik, eta beraz hauek dira soilik material garrantzitsuak.*

*Beraz, Zuzenbide iturriek ez dute berez egoerarik arautzen, kategoria arauemaile horren parte diren dokumentu arauemailetako xedapenen interpretaziotik lortzen ditugun arauen erregimen juridikoa zehazteko balio izango dutelarik.*

*Zuzenbide Iturri eta arauaren artean egindako bereizketa honek autoritate arauemaileen eta epaileen eginkizunak bereiztea du helburu, edo modu orokor batetan esanda zuzenbidearen sorrera eta epaileek egiten duten zuzenbidearen aplikazioaren arteko bereizketa egitea. Egindako azalpenen ondorioz esan dezakegu zuzenbidea sortzeko eginkizunean dokumentu arauemailetan bildutako xedapenen sorkuntza den bitartean eginbehar judizialaren ezaugarria interpretazioaren bidez arau juridikoak sortzea izango litzatekeela.*

## **23. Iturrien artean nola bereizi lotesle direnak eta soft law**

Batzuetan indar loteslerik ez duten dokumentuak publikatzen dira Aldizkari Ofizialetan, iturrien ondoan (ez legezko proposamenak, libros blancos...). Horri deritzo Soft Law-a, ez dira zuzenbide iturriak baina badira arau iturriak. Lotesle itxura daukate baina ez dira lotesleak. Arau politikoak dira, ezin direnak inposatu eta aplikatu zuzenbidezko arau bezala.

## **24. Arau juridikoa eta arau soziala bereizten duena zer da?**

Arau juridikoa eraikuntza intelektual bat da, guk sortzen ditugu arauak, xedapenak konbinatuz. Arau juridikoa hertsakorra, heteronomoa (ez dela autonomoa), negatiboa, hipotetikoa, orokorra eta ziurra (erabilgarritasuna) da. Arau juridikoa nabarmentzen duena ordenamendu juridikoaren parte dela da.

Arau sozialei dagokienez, gizarteak sortzen eta onartzen dituen arauak dira. Arau hauek normalean ez daude idatziak, instintiboki jarraitzen ditugu. Berez, denok bete behar ditugu arau hauek, espektatiba hori dugu eta. Norbaitek hausten badu arau sozial bat, kritikatu egiten da, soziedadeak salatu egiten du. Arau juridiko baten hausturan aldiz, zigorra edo multa dakar.

## 25. Arauek nolako hizkera erabiltzen dute? Eta nolako era edo modu?

Arauek hizkuntza dira, komunikazio dira, baina giza portaera dute helburu: ordenu (bake soziala, koordinazioa) eta gatazka soziala (aldaketa)

Nolako hizkuntza (hizkera) de arauena?

Hizkuntzaren erabilerak:

- Deskribatzaile, – Egiaren balorea, ezagutza,
- Emotiboa/adierazgarri – Sentiarazi, sentsazioak, sentimenduak,
- Antolatzaile/direktiboa? – Eragin : egintzak, ekintzak, portaera – Aholku, agindu, iragarpen, mehatsu, mandatu, eskaera, erregu, errezeta eta baita ARAUA ere

Bereizten dugu: hizkuntzaren sintaxia, semantika eta pragmatika (funtzioa). Pragmatikari ematen diogu garrantzi berezia: Funtzio preskriptiboa osotasunarena da, ordenamenduarena, eta definizio hutsa izanda ere arautzat jo dezakegu

Araukortasunaren aditzak, izenak, izenondoak, aditzondoak: behar, ezin, ahal, arazi, baimen, debeku, agindu, ordenu, debekatua, baimendua, betekizun, derrigorrez, nahitanahiz, ezinbestez.

KASU: honek ez du esan nahi zuzenbidearen hizkera derrigorrez modu aginduzkoan egongo denik, gehienetan indikatiboa da (eta mahiz etorkizuneko denboran). Erabilera eta funtzio preskriptiboa, autoritatea-agintea berezkoa da: Baliozkotasuna: egokitzen jo izana

HIZKUNTZAREN FUNTZIOAK: (GEHIGARRI BEZALA)

Arauek funtzio / modu deskribatzailea izan dezakete baina funtzio nagusia ez da hori izango.

Hizkuntzaren funtzioak:

1. Funtzio deskribatzailea.
2. Funtzio adierazkorra + emotikonoak.
3. Funtzio preskriptiboa + aginduak eman, arauak.

## 26. Nola sailkatu arauak indar deontikoaren arabera?

Edukiaren arabera sailkatzen dira. Hemen batetik, baimenak (derrigorra ez dena) eta bestetik, obligazioak (derrigorra) bereizten dira. Era inberatiboan erabiltzen dira. Logika deontikoaren harremana logika matematiko hutsa da, hau da, ez badago derrigortua baimena dago. Eta egintza bat ez badago baimendua ez derrigortua hutsune baten aurrean egongo ginateke; eta honen aurrean kultura bakoitzak erantzun bat dauka (sistema liberala edo sistema totalitarioetan ezberdina izango da), batzuetan baimendua dago derrigortua ez dagoen guztia, askatasun printzipioa dago jokoan.

## 27. Nola bereizi arauak egituraren arabera?

Egituraren arabera arauak bi motatakoak izan daitezke: erregelak eta printzipioak. Erregelen egitura ondorengoa da:  $p \rightarrow q$  baldin eta  $p$  aurrebaldintza bada eta  $q$  ondorioa. Egitura honen ondorioz, zenbaitetan arauen arteko gatazkak ematen dira, ( $p \rightarrow q$  vs.  $p \rightarrow /q$ ) orduan, erabaki beharko da zein lehenesten den, izan ere, sistema juridikoan ez dago kontraesanik.

Aldiz, printzipioen egitura simpleagoa da. Printzipioek soilik "p" dute, hau da, printzipioetan ez dago ondriorik eta beraz, ezinezkoak dira printzipioen arteko gatazkak.

## **28. Hart-en bigarren mailako erregelak, aipatu eta azaldu.**

Bigarren mailako arauak-erregelak

- Ezagutza araua. Zuzenbidearen arauak zeintzuk diren esaten digute; iturrien arauak dira beraz. Arau bat baliozkoa den jakin ahal izateko ezagutze arau hauen beharra daukagu. Jakiteko zeintzuk diren gizartearen erregelak, hau funtsezkoa da. Badago iturrien erregela bat horretarako (Herbert hartek dio). Horren arabera jakingo dugu arau bat gizartearena den edo ez. Horrela erakundeak sortuz joango dira.
- Aldaketa erregelak. Nola aldatuko ditugun dauden arauak. Horretarako sistema batzuk beharko ditugu, hau sistema garatuetan, legegintzaren arabera egiten da.
- Adjudikazio edo esleipen erregelak. Honek gatazka bat sortzen denean erregela baten inguruan sortzen dela funtzio bat arau horiek betearazteko. Eta betearazpen horretarako erakundeak sortzen dira.

Zuzenbideak bilatu nahi baduzu bilatu behar da multzo bat lehenengo eta bigarren mailako erregelak daudenak. Horrela jakingo dugu estatua dagoen edo ez dagoen.

Gizarte guztietan zuzenbidea badago 2 erregela horiek egongo dira. Estatua sortzean hauek askoz instituzionalizatugo egongo dira. Adibidez, oso arau berezituak sortzen direlako.

Zuzenbidea egoteko lehenengo eta bigarren mailako erregelak egongo dira baina estatua agertzen denean formaltu egiten da.

## **29. Sistemaren ezaugarri meta-logikoak: aipatu eta laburki azaldu**

Sistemak hainbat ezaugarri metalogiko ditu:

- Sistemaren batasuna
- Konsistentzia: arau batek ezin du beste batek esaten duena kontraesan, hau da, ez da kontradiziorik, ez aurkakotasunik
- Osotasuna: zuzenbideak osotasun bat izan behar du, ekintza bat zuzenbidearentzako interesgarria bada honek berarentzako erantzun juridiko bat izan behar du
- Koherentzia: zuzenbidean datozen ideiek bat egin behar dute, armonia dago printzipioen artean horrela izan ezean ez delako ulertuko zein den zuzenbidearen funtsa
- Eraginkortasuna eta erabilgarritasuna: sistema bat eraginkorra izateko instituzioak ondo espezializatu behar dute, baina era berean zuzenbideak erabilterraza eta pragmatikoa izan behar du

## **30. Zer da sistemaren batasuna?**

Sistemaren batasunaz dihardugunean esan nahi du sistema juridiko bat eta bakarra dagoela, eta arau mota ezberdinek sistema juridiko bati dagokiela

### **31. Zer da kontsistentzia eta zer suposatzen du?**

Konsistentzia sistema bereko bi arauen artean kontraesanik ez egotea da, aurkakotasunik ez egotea. Horretarako 1 zuzenbidean hutsunerik egonez gero 2 zuzenbidera jo behar da

### **32. Zer da antinomia bat eta nola sortu daiteke?**

Antinomia sortzen da kontsistentzia apurtzen denean, hau da, sistema bereko bi arauak kontraesaten dutenean.

### **33. Zer da 1- zuzenbidea eta nola bereizi 2-zuzenbidetik?**

1 zuzenbidea ordenamenduen tresnek osatzen duten zuzenbidea da eta 2 zuzenbidea orde, ordenatutako zuzenbidea, juristen zuzenbide ideala. Jakin badakigu 1 zuzenbidean kaosa ematen dela; ondorioz, juristen lana da ahal bezain beste txukuntzea. Txukuntze edo ordenatze horren emaitza, 2 zuzenbidea izango litzateke, horregatik diot juristen zuzenbide idela dela. Hala ere, 2 zuzenbideak ez du existentziarik. 1 zuzenbide, gure ordenamendu juridikoa den bitartean, existitzen den bezala, 2 zuzenbidea asmakuntza bat da.

1.zuzenbidetik 2. zuzenbidera. Lehenengo 1.zuzenbideko xedapenak aukeratzen ditugu, interpretazio erabakia egingo dugu eta bigarren zuzenbidera eramaten dugu xedapena arau bihurtu. 2. zuzenbidean premisa nagusi bezala formalizatuko dugu. 2.zuzenbidean gaudela, gertakariekin bat etorri behar dute arauak, zalantza izpirik gabe formalizatu behar dugu.

### **34. Nola konpontzen dira antinomiak?**

Arauen bateraezintasunari ANTINOMIA deritzo, eta beraz, sistemaren koherentziak suposatzen du ez dela antinomiarik existituko edo sisteman agertzen direnean ezabatuko direla.

1. HIERARKIA IRIZPIDEA: gorengo maila duen arauak beste aruari gailenduko zaio eta beraz, bateraezintasuna emango balitz maila baxuagoa due araua ez da baliozkoa izango eta beraz ez da aplikatuko.
2. ESKUDUNTZA IRIZPIDEA: eskuduntza duena bestearen aurretik aplikatuko da, hau da, eskuduntza ez duen arauaren aurretik. Organoen artean bakoitzari dagozkion materialak banatu ondoren, eskuduntza horren ondorioz emandako arauen artean ematen den erlazioa ez da hierarkikoa izango, eskuduntzaren arabera baizik.
3. PREBALENTZIA IRIZPIDEA: Arau baten etetea da. Hau da, arau batek funtzionamenduan egon ahal izateko, beste arau baten ezabatzean oinarritzen da.
4. KRONOLOGIA IRIZPIDEA: aurrekoa den arauaren derogazioa suposatzen duela eta beraz arau berrienaren aplikazioa.
5. ESPEZIALITATE IRIZPIDEA: Espezialitatearen irizpideak arau berezia arau orokorraren aurretik jartzen du, eta beraz antinomia baten aurrean aurkitzen bagara supostu hura modu zehatzago batetan arautzen duen araua aplikatuko da. Irizpide honek, beraz arau biek materia berdina arautzea eskatzen du, baina haien aplikazio eremua ezberdina izan beharko da.

Lehenengo Hirerarkia (Lex superior ante inferiori), bigarrena denbora (lex posterior derogat anteriori) eta hirugarrena, zehaztasuna (Lex specialli derogat generali).

### 35. Nola bereizi eskuduntzen banaketa eta hierarkia?

Hierarkia edo eskuduntza (competencia). Zeni eman indar handiagoa? Nork agintzen du noren gainean.

Hierarkia - nork agintzen du noren gainean. Hierarkiak maila altuagoa dauka eskuduntza baino. Eskuduntza, nork erabakitzen duen zer?

- Hierarkia - indar juridikoa - (aktiboa besteak gailentzeko eta pasiboa besteak gainditua ez izateko)
- Eskuduntza (indarra horren barruan aplikatzen da baina kontuz oinarri legeak, harmonizatze legeak)

### 36. Zer da osotasuna zuzenbidean?

Zuzenbidean dauden hutsuneak betetzean oinarritzen da. Hau da, zuzenbidean hutsunerik ez egotea. Hutsunerik balego, zuzenbideak, hauek ezabatzeko tresnak emango lituzke. Auto- integrazioa (zuzenbidearen tresnekin hutsunea betetzea) eta hetero-integrazioa (hutsuneak kanpoko zuzenbideen konparaketarekin betetzea) dira elementuak.

### 37. Nola betetzen dira hutsuneak zuzenbidean?

Sistema hutsuneak betez osatzen da, sisteman ez dago kontraesanik.

Osatzeko hiru modu daude:

1. Auto osaketa. Barnean daukazun tresnak erabilia, zeu osatzen zara. Zeure baliabideekin, sistemak dauzkan baliabideekin, analogia eta printzipioekin. Analogian, antzeko egoera bati aplikatu zaiona aplikatzen da. Ez nada nahikoa, orduan printzipioak aplikatzen dira.
2. Hetero osaketa. Zuzenbidetik at ateratzea osatu ahal izateko. Espainian ez dago, beraz, Frantziakoa begiratzuz erantzun (nolabait kopiatu).
3. Beste arau sistema batean aritzea, bestean aurkitzen ez baduzu, moralan, politikan... moral guztiak ez dira berdinak, bat inposatu.

### 38. 2-zuzenbidean ba al dago hutsunerik?

Ez, ez dago hutsunerik. Izan ere, II. Zuzenbidea tresnen bidez eraikitzen da, horrela, hutsuneak betez.

### 39. Zer da koherentzia?

Zuzenbidearen arauak bat egiten dutela esan nahi du koherentziak. Koherentziak kontraesana ez izatea soilik ez da, harmonia du. Izan daiteke kontraesanik ez izatea, baina kohesiorik erez. *Adibidez, bi arau: aterkirik ez erabili, barre egin behar da --> Kontraesanik ez baina koherentziarik ere ez. Ordea, gaur txubaskeroa erabili, gaur*

*aterkia erabili* --> Koherentzia. Koherentzian mailakatze bat dago, koherenteagoa izango da, ez hain koherentea.

Koherentzia sistemaren ezaugarri bat da, zeinaren arabera edozein gertakarik arau tratamendu bera jasotzen baituen sistemaren barruan.

#### **40. Arauak eta sistemak eraikuntza intelektualak dira: egia ala gezurra? Zergatik?**

Egia. Ohiturak ez digu araua ematen, ezta printzipio orokorrak ere, guk sortzen ditugun eraikuntza intelektualak dira, denok konpartitzen ditugunak, jakina (etika, morala...). Batzuk iturria idatzita edo sorburu ez idatzietatik datozte, %99a xedapenetatik dator (asko direla esateko modu bat). Baina xedapenetatik ez datozten arauak ez dute garrantzi gutxiagorik.

### **3. Erakundeen Teoria**

#### **41. Institutuak edo instituzioak (erakundeak) eman lau adibide desberdin.**

Pertsona, Obligazioak, Esskubideak eta Delituak.

Instituzio edo institutu, erakunde azken finean organo bat (agentzia bat, izaki bat) edo gai bat (egoera bat, egitura bat) ordenatzen duen arau multzo bat da. Guri orain interesatzen zaizkigun institutuak gaiak, erlazioak eta egoerak dira; eta ez hainbeste agentziak edo aginte diren "erakundeak" : legegileak, exekutiboak (administrazioak) edo judizialak.

Hiru motatako arauak dira institutua arautzen dutenak:

1. Arau eratzaileak: nola sortzen den erakundea
2. Arau ondoriozkoak: zer erlazio jarraitzen diren erakundetik, zer egin dezakeen, zer egin behar duen
3. Arau amaitzaileak: erakundea noiz amaitzen den

#### **42. Institutua errealitatearen dimentsio berezi batean dago: zer da egitate instituzionala?**

Egitate instituzionala, oinarrizko kontzeptu juridikoen barruan kokatzen da. Hau da, Jonh Searle-n teorian kokatzen da. Honek, errealitateak bi zati zituela esan zuen; egitate gordina eta egitate instituzionalak.

- Gordinak: fisikoa. Erregularik gabe funtzionatuko luke, lengoia eta hezkuntza ez ditu behar, existitzen dena inongo beharrik gabe.
- Instituzionala: arauak sortutako mundua edo errealitatea. Adb: futbol zelai bateko jokalaria, porteriak,... errealitate gordina dira baina gol bat sartzea errealitate instituzionala izango da, arauak sortu dutelako.

#### **43. Hiru erregela edo arau motak topatzen dira instituzioetan, zeintzuk?**

Instituzioetan topatzen diren hiru arauak hurrengoak dira: arau eratzaileak, ondoriozkoak eta amaierazkoak. Instituzioak mota desberdinetakoak izan daitezke eta arau hauek aplikatuko zaizkie hauei:

- **Arau eratzailleak:** arau hauek esaten digute erakunde bat adibidez (edo beste errealitate bat) nola sortzen den, nola eratzen den. Hau da, zer baldintza jarraitu behar diren zerbait gauzatzeko edo sortzeko. Noiz hartzen da instituzio bat eratutzat? Pertsonen kasuan? Jaiota egon behar du pertsona baina hala eta guztiz ere, fetoak eskubide batzuk izango ditu eta babestua egongo da. Enpresen kasuan edo sozietateen kasuan, izena ematean emango dira sortuak egongo balira bezala. Eraketa guzti hauek zuzenbidearekin lotuak daude, zuzenbidea kentzen badugu ez dute existentzia juridikorik edukiko; fisikoak izango dira. Pertsona eratu dagoenean, ondoriozko arauetara pasako gara: status erlazioak.
- **Arau ondoriozkoak:** zer jarraitu edo egin dezakegun esaten digute kontuan hartuz gertaera zehatz baten eduki dezakeen ondorioa. Ondoriozko arauetan ahalmenak, gaitasunak eta statusak sartuko dira. Ahalmenen barruan bereiz ditzakegu:
  1. Ahalmen pasiboa: Jasotzeko gaitasuna izango da. Onurak, kalteak, obligazioak...
  2. Eraginda izateko ahalmen pasiboa: agindu-promesa baten onura, dohantzak, jaraunspenak, kalteak ere jasan ditzake.
  3. Ahalmen aktiboa edo eragilea: Arauak jasotzeko ahalmena da. Konpainia batek delitu bat egin dezake?
  4. Erantzule izateko ahalmena: Erantzukizun zibila edo penala adibidez. Adingabe batek edo Espainiako erregeak ez du erantzukizunik izango. Pertsona batzuei ahalmen berezi batzuk aitortzen zaizkie dituzten gaitasunengatik.
    - Statusak: ahalmenekin zerikusi handia dute.
      - Statusa: hemengo, estatu honetako herritarra edo nazionala, han, beste estatu batean atzerritar, hemen atzerritar eta errefuxiatu, edo atzerritar eta etorkin, etab. Baina badira pertsona batzuek naziotasun bikoitza dutenak: bi estatu desberdinetan dira nazional.. Ezkontza eta beste antzeko batasun afektiboak, erresidentzia...
      - Status: langile edo funtzionario (beste baten konturako kontratua), buruenplegatua
      - Status diplomatikoa / Status: errefuxiatuak /Status: residente
      - Status: mugazbestaldeko langile / Status: zerbitzu emaile, zerbitzu hartzaile
      - Status sukurtsalak, amakiak eta umekiak
- **Amaierazko arauak:** errealitate bat existitzeaz amaitzen duenean. Noiz hiltzen da? Burmuinaren heriotza... Pertsona juridikoa desegiten denean, erroldatik kendu. Errealitate gordinek ez du zentzurik araurik gabe, mugimenduak soilik egongo lirarteke.

#### 44. Zer dira institututaren arau eratzailleak?

Arau hauek esaten digute erakunde bat adibidez (edo beste errealitate bat) nola sortzen den, nola eratzen den. Hau da, zer baldintza jarraitu behar diren zerbait gauzatzeko edo sortzeko. Noiz hartzen da instituzio bat eratutzat? Pertsonen kasuan? Jaiota egon behar du pertsona baina hala eta guztiz ere, fetoak eskubide batzuk izango ditu eta babestua egongo da. Enpresen kasuan edo sozietateen kasuan, izena ematean emango dira sortuak egongo balira bezala. Eraketa guzti hauek zuzenbidearekin lotuak daude, zuzenbidea kentzen badugu ez dute existentzia juridikorik edukiko; fisikoak izango dira. Pertsona eratu dagoenean, ondoriozko arauetara pasako gara: status erlazioak.

## 4. Pertsonak

### 45. Pertsonaren dimentsio desberdinen artean juridikoa dago baina aipatu beste hiru status edo dimentsio

Ikuspegiaren arabera pertsona bat gauza bat edo beste bat izan daiteke:

- Status biologikoa, interesak, beharrak,...
- Status ekologikoa: ekosistema bateko kide
- Status psikologikoa: sentimenduak dituen pertsona
- Status politikoa: hiritarra
- Status soziologiko-komunikatiboa: gizarte edo jendarteko kide, taldekide, kultura,...
- Status etiko-morala (filosofia praktikoan): eragile, agente, jasale, gizabanako, gizakume, morala duena, ..

### 46. Zer esan nahi du persona juridikoki egozpen puntua izatea?

Beste edozein pertsonari kalteak sortu diezazkiokela adierazi nahi du.

### 47. Zertan bereizi persona fisikoa eta persona juridikoa?

- Pertsona juridikoa: existentzia eta nortasuna zuzenbideak ezartzen du, ez dute existentzia fisikorik.
- Pertsona fisikoa: existentzia ez da frogatu behar, zuzenbidea kenduz gero pertsonak jarraitzen du, baina pertsona horrek daukan status juridikoa bai desagertzen dela (badira apatridak munduan, adibidez), paradajikoa den arren, zuzenbidea behar da: statusa zuzenbide bakoitzak aitortuko du.

### 48. Zertan bereizi pertsonaren alderdi aktiboa eta pasiboa?

Pertsonak dimentsio aktibo (bere interesak bilatu) bat dute eta beste bat pasiboa (kalteengandik edo gaitzengandik babestu). Bi izaera hauek pertsonari ematen diote denboran jarraitzeko aukera (continuity of person in time: jaiotzetik heriotzara).

### 49. Pertsona baten identitatea aldatzen bada persona aldatzen al da?

Ez. Pertsona batek bere identitatea aldatzen badu, ez du zertan esan nahi pertsona hori aldatu egin denik. Hau da, nik aldatu dezaket nire identitatea baina pertsona bera izaten jarraitzen dut.

### 50. Konpainia batek pertsonatasuna badu zergatik ez animaliek edo naturak?

Animaliek eta naturak, ez bata ez besteak, ez dute arauak jarraitzeko ezta beren ekintzen gaineko erantzunkizuna izateko gaitasuna. Beraz, ezin dira eskubide eta betebeharren erantzuleak izan. Zelanda Berriari kasu bat eman da non ibai bati izaera juridikoa eman zaion.

Konpainiek pertsonaltasuna dute pertsona juridikoak direlako. Hori dela eta, animaliak eta naturak ez daukate pertsonaltasunik. Passive capacity, ahalmen pasiboa (onurak, edo kalteak, jasotzeko gaitasuna modu orokorrean). Adibidez, ondarea babesten duen lege batek gu guztion onura eta interes kulturala babesten du, ez dira eraikin baten interesak babesten nahiz eta eraikina bera da babesten den objektua.



### 51. Pertsona institutuaren ondoriozko arauak zein kategoritan sailkatzen ditugu?

Ondoriozko erregelak erlazio juridikoak dira, kontratuetan sortzen diren obligazio eta eskubideak, adb. Obligazioak kontratutik sortzen dira, baina badira kontraturik jarraitzen ez diren obligazioarik, hau da, kontratuz besteko obligazioa. Adb., beste pertsona bati kalterik ez egiteko obligazioa. Hemen obligazio bat sortzen da kontraturik gabe.

### 52. Zer da pertsonaren ahalmen pasiboa?

Babestua izateko ahalmena. (onurak, edo kalteak, jasotzeko gaitasuna modu orokorrean, adibidez ondarea babesten duen lege batek gu guztion onura eta interes kulturala babesten du, ez dira eraikin baten interesak babesten nahiz eta eraikina bera da babesten den objektua). Eraginda izateko ahalmen pasiboa, agindu-promesa baten onura, dohantzak, jaraunspenak, kalteak ere jasan ditzake.

- "Passive transactional capacity", eraginda izateko ahalmen pasiboa, agindu promesa baten onura eta kalteak ere jasan ditzake.
- "Intransactional capacity", aritzeko gaitasuna, ahalmen berezi batzuk aitortzen zaizkie pertsona batzuei dituzten gaitasunengatik.

### 53. Pertsonaren hiru status desberdinak aipatu

- Status ekonomikoa: homo economicus
- Status ekologikoa: ekosisteman kokatua eta ekosistemak sortzen, aldatzen, suntsitzen
- Status politikoa: herritarra, (adinean heldua)

### 54. Pertsona juridikoaren amaierazko araua aipa dezakezu?

Pertsona juridikoaren kasuan, erakunde bat egongo da erabakitzen duena deuseztatzea gizartea edo persona juridikoa. Deseztatzen denean, orduan, esan dezakegu jada ez dagoela gehiago persona juridiko hori. Horrek ez du esan nahi erantzunkizuna galtzen duenik.

Pertsona fisikoaren kasuan, heriotzarekin lotu ahalko genuke, burmuinak aktibatzerik ez duenean

## 5. Kontratuak

### 55. Kontratu institutu bezala pertsona bakarra eskatzen du: egia ala gezurra, zergatik?

Gezurra, gutxienez bi buru behar direlako. Izan ere, kontratu bi buruek (gogo eta asmo) zerbaiten inguruan bat egiten dutenean sortzen da. Eta pertsona batek ezin du bere buruarekin kontratu bat egin. Bi buruek bat egiteko baldintzak lotutako beste baldintzetara garamatza: batez ere ahalmen edo gaitasunera.

### 56. Kontratuak pertsonaren ahalmena eskatzen du baina zein da emaitza?

Kontratuaren emaitza erlazio juridikoa izaten da eta erlazio edo harreman hartan obligazioak inplikaturik daudelako.

### **57. Bi buruen topaketa ez bada sortzen, itxura bai baina badago kontraturik?**

Ez dago kontraturik. Pertsona batek ezin du bere buruarekin kontraturik egin, bi alderdien buruek bat egin behar dutelako. Posible da, ordea, bi pertsonetako batek ezer ez egin behar izatea, adb, dohaintza.

### **58. Kontratu batzuek formaltasun handia behar dute eratuak izateko. Adibide 1 eman**

Normalean formaltasun berezirik gabe gauza daiteke kontratua, baina kasu batzuetan, kontratu batzuetarako, arauak formaltasuna eskatzen dute eta kontratua ez da gauzatuko formaltasun hori betetzen ez bada. Beraz, formaltasunak sortzen du kontratua kasu batzuetan, adibidez, enkanteak: hirugarrenez mailuak jotzen duenean esleituta dago,

Formaltasun klasikoa, bostekoa da, eta horrela ixten da tratua, bostekoa eman arte ez da ixten.

Batzuk, formaltasun handia eskatzen duten hala nola, hipoteka: notario baten aurrean adostu behar da.

### **59. Kontratukideak botere berdina izango dute beti: egia ala gezurra?**

Gezurra. Alderdietako batek ez badu gaitasunik (bere status-a baldin bada adingabea, edo gaitasunik gabekoa) orduan bere legezko ordezkari edo tutoreak egingo du bere ordezkari kontratua.

Teorian, kontratu bateko alderdiak berdintasun egoeran aurkitzen dira, ez dago indar desberdintasun gehiegirik bi alderdien artean, baina errealitatean alderdiak indar desberdinetakoak dira, bata indartsuagoa da eta bestea ahulagoa. Zuzenbideak kasu hauetan, alderdi ahula defendatzen du.

### **60. Nola ulertu daiteke kontsumitzaileen babesaren kontratuaren ikuspegitik?**

Zuzenbideak askotan birpentsatzeko aukera ematen du, retrakto edo erretreta eskubidea, akordioa egon da, buruak elkartu dira, baina alderdi batek hobeto pentsatu du eta kontratua sinatu eta gero, batzuetan zuzenbideak atzera egiteko eskubidea ematen dio; esan daiteke nahi eta sinatua egon kontratua bera ez dela sortzen erretreta epea amaitu bitartean. Direktiba batzuek eskubide hau zaintzen dute, kontsumitzaileen babesaren gisa.

### **61. Zer da kontratu tipoa? Eman adibideren bat**

Kontratu tipoa, ekoizle edo hornitzaileek eskaintzen dituzten kontratuak dira; beti baldintza berekoak eta inori zehazki zuzendu gabeak. Kontsumitzaileak beraz, ezingo ditu kontratu hauek baldintzak negoziatu. Kontratu tipoa adibide garbiak ditugu, esaterako, argindar konpainia baten kontratua, aseguru etxea, gas hornitzailea...

### **62. Zuzenbideak beti alderdi boteretsua babesten du: egia ala gezurra? Arrazoitu erantzuna.**

Gezurra. Zuzenbidea berez inpartziala da, eta hala izan beharko luke. Bi alderdi aurkitzen ditugunean batzuetan berdintasun egoera aurkituko dira, status iguala daukatenean bereziki. Baina hainbat kasu aurki ditzakegun non alderdi bat bestea baino indartsuagoa dela. Horrelakoetan, ahula babesten da, bestela giza eskubideek ez zuten zentzurik izango.

## 6. Loturak eta Kalteak

### 63. Obligazioak sortzen dira bakarrik kontratuetatik: egia ala faltsua? Azaldu

Faltsua. Esan dugu obligazioa kontratuaren ondorioetako bat dela, baina obligazioak sortzen dira kontratuz besteko erlazioetatik ere bai: kontratuz-besteko erantzukizuna adibidez (konpontzeko) obligazioa dakar sortutako kaltearen ordaina bezala.

### 64. Kontratuz besteko obligazioak erantzukizunarekin zer erlazio du?

Obligazioak erantzukizunarekin lotuta daude, izan ere, gure obligazioak ez baditugu betetzen gure jokabideak erantzukizuna edo ondorioak izango ditu eta sortutako kaltea konpentsatu beharko dugu.

Erantzukizunak kontratuen erlazioetan sortzeaz gain, kontratuz besteko egoeretan ere sortzen dira eta hauek nahita (delitua) edo nahigabe sortutakoak izan daitezke eta horien arabera konpentsazioa izango dute.

Kontratuz beste obligazioak erantzukizunarekin sortzen duen erlazioa sortutako kaltea konpontzean datza, kaltearen ordaina izango balitz bezala.

Kontratuz besteko obligazioak esate baterako, besteari kalteak egitean sortzen dira. Hau da, nik kontratu bat sinatzen dudanean hirugarren pertsona bateri kalte batzuk sortzen badizkiot, nik, kalte horiek ordaindu egin beharko ditut. Beraz, kontratuz besteko obligazioa kalteak ordaintzea izango litzateke.

### 65. Zein da persona orok dugun oinarrizko obligazioa?

Obligazio orokor bat dugu pertsona guztiok, aldegia, besteei kalterik eta minik ez egitearena, eta sortzen diegunean kaltea ordaindu behar izaten dugu. Elkarbizitzaren baldintza da bestea ez kaltetzearena, eta sortutako kaltea konpentsatzea.

Esan daiteke, bizitza sozialean inplizitua den kontratu sozialaren obligazio nagusia dela errespetatzea eta ez kaltetzea.

Ez dugu onurarik egiteko obligaziorik, bakarrik gaitza edo kaltea eragozteko obligazioa baizik.

### 66. Norbaiti kalte sortu diogunean zer ondorio juridiko jarraitzen da?

Norbaiti kate bat sortzen diogunean, kalte hori sortu dion pertsonak kalte guztiak ordaindu egin beharko ditu. Beraz, daukagun ondorio juridikoa kalteak konpontzea izango litzateke.

### 67. Gaitzak (kalteak) bi motatakoak dira, zeintzuk dira dauzkaten ondorioak?

1. Delituak edo hobenak (ofentsak) edo krimenak (faltak, kontrabentzioak), erantzun edo ondorio gisa zigor penala dakarte, zigorra. Normalean biktima bat dago baina gizarte osoa dago kaltetua neurri batean. Erantzuna gizartearena da. Aginte publikoak ekingo dio epai-akzioari edo zigor prozesuari
2. Gaitz zibilak, arauaren aurkako ekintzak pertsona bat kalte sortzen diotenak eta erantzuna edo ondorioa gaizkilearen erantzukizuna da, kaltea ordaindu (konpentsatu) edo konpontzeko, alegia

kalteordaina. Hemen erantzuna kaltetuaren ardura da edo bere ordezkariena, edo aldebitariko konponketa bilatuz edo epaibidetik

## 7. Jabegoa

### 68. Jabetza da bi pertsonen arteko erlazioa, kontratua bezala: zergatik ez da egia?

Kontratua eta jabetza bi gauza ezberdin dira. Kontratua, bi pertsonen gogo eta asmoen topaketari esaten zaio eta jabetza berriz, gauza bat zurea izango bazen bezala jokatzea. Adibidez etxebizitza baten erosketaren kasuan, saltzailearen jabetzari amaiera ematen zaio, eta ez du erlazio gehiagorik izango etxe horrekin, eroslearena izango da jabetza soilik, aurrekoak ez du zerikusirik izango.

### 69. Nola lortzen da jabetza? Bi kategorietan sailkatzen dugu, zeintzuk?

Edukitzea – possessio – gauza eskuratzea da biderik errezena gauza bat pertsona batena dela esateko: Funtsean bi modutan eskuratzen da gauza:

- Orain arte inorena ez dena
- Orain arte beste batena zena, azken kasu honetan nereganatzen dut adkiszioz beste jabe batengandik. Kasu hauetan tituluak laguntzen du jabetza frogatzen. Baina eskuratzeko modua adostua behar du izan, ez behartuta edo iruzurtua, edo engainuz. Baina baliteke fede onez neureganatzea erosketan nahiz eta gauza ez zen pertsona horrena (eta berak ez zekien titulua bestearena zela)

Gauza berriak (inorena ez dena) ere eskura daiteke. Adibidez arrantzan nago eta arraina eskuratu dut, nire arraina da, mendian nago eta kuleto bat eskuratu dut, nirea da (occupatio, edo accessio, nire behorrek zaldikumea izan du, nirea da, alluvio nire lurrean bazterrean errekek edo lurbiziaz ekarritako lur berria, specificatio, nire enborrarekin eskultura bat egin dut, nirea da, confusio, gauzak nahasten direnean gauza berria ere nire jabegokoa da).

### 70. Zein da jabetza institutaren ondoriozko araua?

Jabetza eskuratu duenak, jabetzaren gaineko eskubide osoa eta eskusiboa izango du. Eskubide honek lotura suposatuko du gainontzekoentzat, beste alderdiek eskusibitate hori errespetatu beharko baitute. Ez errespetatuz gero, akzioa egongo da epaibidean.

Jabetzak pribilegio eskusiboa dakar. Bereiztu daitezke eskubide errealak eta eskubide pertsonalak. Batetik, eskubide errealei dagokionez, ia gauza guztiek jabea dute eta behin gauza bat norbaiten domeinukoa bada beste guztiek errespetatu behar dute. Bertan, zuzenbidean, gauzak izan daitezke existentzia gordina dutena edo baita ere existentzia instituzionala bakarrik dutenak, eta gauza hauen gainean dagoen domeinua edo jabetza titulu batean azal daiteke.

Bestalde, eskubide pertsonalei dagokionez, pertsonen gainean, bi alderdien artean kontratu erlazioak daudenean kontratugaia den gauza bat dela medio. Gauza bereganatzeko beste alderdiarengana joan beharko da gauza eman diezaion.

Eskubide guzti horiek lotura suposatzen dute, beste alderdiek errespetatu beharra eta ez errespetatuz gero, akzioa edo eskubidea egongo da epaibidean.

## 71. Jabegoa den gauza derrigorrez existentzia fisikoa (gordina) behar du?

Gauzak izan daitezke Higikorrak (leku desberdinetan egon daitezke) eta higiezinak (beti leku berdinean).

Erreal eta ideala ere izan daiteke (akzioa ideala da, ez dago inon enpresa baten akzioa edo zatia, copyright-a ideia batena). Zuzenbidean gauzak dira bai existentzia gordina daukatenak eta baita ere existentzia instituzionala bakarrik dutenak (akzioa, zozketarako boletoa, internet domeinua, zuzenbidean existentzia dute, ez dira fiktizioak baina ez dira materialak).

Gauza hauen gainean dudan domeinua edo jabetza titulu batean azal daiteke, ala ez

## 72. 1. Jabetza Institutak eragina izan dezake hirugarren pertsonengan, nola?

Jabetza eskubideak 3. alderdiei eragiten die ondorio gisa (errespetatu behar dute zure jabegoa) eta jabeak erabaki dezake 3.pertsonekin/alderdiekin kontratu berriak egitea jabegoaren gainean (adb, alokairua), besteak lortzen dutena da gauzaturiko eskubide zehatz bat, baina jabeak gordetzen du gauzaren eskubidea.

## 72.2. Zer esan nahi dute printzipio hauek?

- a) **pacta sunt servanda:** Zuzenbide Zibilean, kontratuen gaiaren inguruko printzipio garrantzitsu bat da. Kontratuak, bi alderdiak kontratua betetzera behartzen ditu eta hauek ezingo dute aitzakiarik jarri.
- b) **agindua zor**
- c) **bona fides edo fede ona:** ekintzak egiterakoan asmo ona edo gogo gaiztorik gabe egiten direnean.

## 72.3. Azaldu kontzeptu hauek:

- a) **kontratu askatasuna:** Kontratu bat sinatzerakoan bi alderdiek askatasuna izango dute. Beraiek adostutako irizpideen arabera jardun dezakete arau batzuk jarraitu behar izan gabe.  
Baina
- b) **alderdi ahulena babestu** beharko da beti. Kontratu bat sinatzerakoan bi alderdiak posizio berdinean daudela ulertzen dugu, botere berdina dutela. Baina beti ez da horrela izaten. Horregatik, kasu hauetan zuzenbideak alderdi ahulena babesten du.  
Zuzenbideak, alderdi ahulena babestuz
- c) **bidegabeko aberaskeria** saihesten du. Hau da, ez du onartzen alderdi indartsua alderdi ahularen zorte txarraz, ez jakintasunaz, eskuzabaltasunaz... aprobetxatzea.

## 8. Orokorrak

### 73. *pacta sunt servanda* eta "agindua zor" zer dira kontratuen teorian?

*Pacta sunt servanda* zuzenbide zibilean kontratuen gaiaren inguruko printzipio garrantzitsu bat da. Kontratuak bi alderdiak hori betetzera behartzen ditu eta haiek hori betetzeko ezingo dute aitzakiari jarri.

*Agindua zor*, batzuek kontratua promesa edo aginduarekin lotzen dute: nik zerbait agintzen badizut, zurekiko lotura bat sortzen dut, baina horretarako zuk onartu egin behar duzu agindua. Agindua zor esaten dugu euskaraz, eta zor hori da ondorioa. Baina agindu aldebakarrekoak ez du loturarik edo zorrik sortzen beste alderdiak ez badu onartzen.

#### **74. Fede ona eta *status quo* zer dira (kontratuen inguruan)**

Fede ona ekintza egiterakoan, obligazioa betetzerakoan edo eskubidea egikaritzekoan, asmo ona izatea, asmo gaiztorik gabe bideratzea.

*Status quo* litzateke ezarritako egoera edo adostasuna. Ondorioz, kontratuen alorrean adostutako hori babesteko beharra dago, ezin baita besteei dagozkien egoera aldatu haien adostasunik gabe.

#### **75. Kontratu askatasuna eta diskriminazioa (kalterik ez sortu)**

Kontratu askatasuna: Kontratu bat sinatzerakoan bi alderdiek askatasuna izango dute. Haien adostutako irizpideen arabera jardun dezakete, arau jakin batzuk jarraitu behar izan gabe.

Diskriminazioa, kalterik ez sortu.

#### **76. Bidegabeko aberastea zer da?**

Zuzenbideak alderdi ahulena babestekoan, bidegabeko aberastea saihesten du, hau da, ez du onartzen alderdi indartsua beste alderdiaren, ahularen, zorte txarraz, ez jakintasunaz, eskuzabaltasunaz... etekina ateratzen.

#### **77. "ahulena babestu" esaten dudanean zer institutu juridikotaz pentsatzen duzu?**

Kontratuaz pentsatzen dut. Kontratu askatasuna dago baina, ezin da diskriminatu eta alderdi guztiak berdin tratatu behar dira. Dena dela, alderdi ahulenari alderdi indartsuaren aurrean babes berezi bat aitortzen dio zuzenbideak. Hasieran, ulertzen da kontratu bat sinatzerakoan bi alderdiak posizio berdinean daudela, botere berdina dutela. Baina, hori ez da beti hala izaten.

### **9. Delitua, mala**

#### **78. Delitua: nola bereizi mala in se eta mala prohibita?**

"Mala in se": berez txarrak. Delitua da, berez gaitza delako eta horregatik debekatzen dira.

Baina badira beste gaitz batzuk beste arrazoiengatik debekatzen direnak, baina ez derrigorrez gizartearen funtsezko edo gorengo baloreak urratzen dituztelako, gaitzak dira debekatzen direlako: "Mala prohibita".

Mala in se : Debekatzen dira gaitzak direlako ≠ gaitzak dira debekatzen direlako: mala prohibita.

Zibilizazio prozesuaz gerta liteke mala prohibita diren horiek mala in se bilakatzea, estigma morala hartzen doazelako: delitu ekologikoa, zerga iruzurra, biolentzia.

- Mala in se - Berez txarrak direnak, zuzenbidea kentzen badugu, txarrak izaten jarraituko dute:  
bortxaketa, lapurreta,..
- Mala prohibita - zuzenbideak debekatzen ditu, zigorra dakar.

Bi adibide horiekin ikusten da gizarteak zein egoera gaitzesten dituen, stigmatu. Egoera batzuk nahiz eta zuzenbideak ez debekatu edota zigortu, etikoki eta moralki gaizki ikusita egongo da, bortxatu, lapurtu adb.

Zuzenbide penalean sartzen da gehien bat mala in se eta mala in prohibita. Gaitasun mentalik ez duen pertsona batek, ez du MENS REA izango eta baliteke gauzatutakoa nahigabe izatea.

### **79. Zein da kaltetua delituetan?**

Biktima. Delitu bat egon dela jakingo dugu frogak egongo direlako. Biktimak kontatuko du, salatuko du. Biktima adintxikikoa bada, fiskala sartuko da. Ez bada frogatik, salaketarik... egon, ez du esan nahi delitua ez denik egongo gauza da ez dela egoera horren berri eman, ez da argira atera, salatuz, edozein informatuz, egoera horrek pena bat izateko. Delituaren ezaugarriak: kalte orokorra, zigorra, gizarte osoa, morala, culpa, askatasuna eta biktima.

Delituaren gaitza pertsona jakin bati egiten zaio normalean, baina badira delitu batzuk gizarte osoari eragiten dietenak. Batak zein besteak, delitu guztiek, gizarteari kalte egiten diote. Biktima zehatza dagoenean eta ez dagoenean, gizartea beti da kaltetua. Horregatik, gizarteak askotan delitua salatu dezake.

### **80. Zer da mens rea delituan?**

Delituak gaitz mota bereziak dira, eta bereizten dira gaitzak diren kalteengandik (hauek ziren erromatar zuzenbidean delict) edo kontratu hausdurengandik, edo agindutako zorra ez kitatzeagatik eta antzeko gaitz zibil edo pribatuengandik. Delitua den gaitza zigorgarria da, xedagarria, gizarte osoaren izenean gaizkileari ezarritako beste gaitza bat (mina, zigorra), baina delitua nahita egindako gaitza da, delitugileak bere gaitza egiten du gogoz: mens rea, gauzaren gainean edo ekintzaren gainean burua (gogoa, asmoa) jarritz.

Delitugilea jabetzen da egiten ari denaz, aukera du hori ez egiteko, baina egiten du, bere askatasuna erabiltzen du kaltea egiteko. Mens Rea adierazten du errua eta erantzunkizun penala: ez da erantzule penala errugabea dena eta ez dago errurik ez bada egilea jabetu.

### **81. Zein da delituaren ondorioa?**

Zigorra, pena. Ez badago delitua, ez dago pena. Behin delitua egin dugula, zigorra dugu eta ondoren horren betearazlea. Aurrebaldintza delitua da eta horren ondorioa pena.

Ekintza - delitua - zigorra, pena - ezarritakoa bete.

Ekintzak stigma izango du, delitua izango dena.

1. Zuzenbide penalak delituak eta penak aurreikusten duen arloa da.
2. Justizia penalaren sistema, nola pasatzen da eta ematen den prozesua delitu bat gauzatzen denetik, pena bat ezartzen den arte.
3. Sistema soziala, nola lortu delitu gabeko gizarte bat, gaitzik izango ez duen gizartea.

Zuzenbide penala - delituak (aurrebaldintzak) - zigorrak (ondorioak) - zigorren betearazpenak

Epaiketa :DELITUA dagoela adieraziz eta akusatua errua duela eta erantzule dela (epailea, auzitegia, abokatuak, fiskalak) - helegiteko aukera (funtsean ez dela delitu, edo ezarritako zigorraren kontra, berriz magistratuak eta abokatuak) - ezabatu edo zigor berria - ZIGORRAREN betearazpena, exekuzioa. Eta hemen beste erakunde eta eragile asko sartzen da (espetxeetako teknikariak, espetxeetako epaitegiak, polizia, abokatuak, presoak, familiak,...).

## **82. Zergatik diogu zuzenbide penalak mezu sinbolikoa dakarrela?**

Zuzenbide penalaren alderdi adierazkorra : estigma

Mezu sinboliko bat dakar zigorrak beti, estigma bat: zigortutako pertsona egindako kalteaz eta kalte horren bidegabekeriak jabe dadin, eta delituak sortzen duen gaitzaz. Sinbolo edo ikurra stigma da (karisma-ren kontrakoa ia ia). Zuzenbide penala adierazkorra da, espresiboa, (garai batean zuen aiton-amonek esaten zuten: bekatu larria!!!) eta dimentsio publikoa du delituak, larria da eta biktimari zuzenki eragiteaz gain gizarte osoari ere eragiten dio eta gizarteak erantzuten du gaitzespen gogorraz.

Hortaz gain, delitu penalak eragindako zigorrak ere sinbolikoa izan daiteke helburu sinbolikoa badu, kontuan izan behar dugu beste helburu batzuk ere izan ditzakela: funtzionala, mendekua, klinikoa, sinbolikoa.

- Sinbolikoa, gaizki dagoen ekintzaz jabetzeko. Egoera berdina berriro ere ez emateko.

## **83. Nork ezartzen du zigorra? Biktimak ezar dezake?**

Beti gizarteak ezartzen du, inoiz ez biktimak (ezin justizia norbere eskutan hartu). Gizartearen izenean epaileek justizia egiten dute, herriaren izenean eta ordezkari: gogoratu EK 17(1) art: *"la justicia emana del pueblo"*.

## **84. Nola bereizten dugu zuzenbide penala eta justizia penalaren sistema?**

Zuzenbide penalak delituak eta penak (zigorrak) aurrikusten ditu: hobeto esanda, delituak definitu, zehaztu eta auredenitu ditu eta hauen ondorioak, penak, zehazten ditu. Zuzenbidearen legezko xedapenetan egiten du hori. Gizarteak arau horiek jarraitzen ditu. Justizia penala, aldiz, nola pasatzen den zigor batetik hori betetzera da; hau da, nola jakin ekintza bat gertatu dela adierazten digu.

## **85. Zein da zigortzearen xedea? Aipatu eta azaldu hiru erantzun desberdin**

Zigorraren helburu nagusia da delitua egin duen pertsona jakinean egotea hori gaizki dagoela.

Era ezberdinak egon daitezke zigortzeko.

1. Lehenengo era, era sinboliko bat izan daiteke. Hau da, heziketa bat bezala zigortzen da konturatzeko egin duena gaizki dagoela.
2. Bigarren era, funtzional indibiduala edo prebentzioa izan daiteke. Kasu honetan, zigorra jartzen da hurrengo batean ez egiteko.



3. Azken era, klinikoak izan daitezke. Hemen, gaizkileak neurri batean asumitu egiten du gaixo dagoela eta hori dela eta, klinika batera joan beharra duela. Espetxeak, zuzenbide bezala hartzen dira gaizkilea zuzentzeko.
- Mendekua, justizia ordainkaria ere egon daitezke. Kaltea kaltearengatik egitea, alegia.

### **86. Sistema sozialak nola lagun dezake delitu eta kalteak gutxiago izateko?**

Sistema sozialak lagundu dezaken era bakarra da gizartea kontzientziazten delitu bat egitea ez dela bat ere ona. Hau da, zerbait egitearen ondorioz norbait kaltetua baldin bada, delitua egin duen pertsonak zigorra jasan beharko duela.

Ondo antolatutako GIZARTE batean, espero dugu deliturik ez egotea, edo izan behar badira, gutxienez urri izatea, delitugutxi egotea, espero dugu halaber arauak apurtzen dituztenak geldituak izango direla; gainera espero dugu gaitzak eta gaizkileak jakiteko eta aurkitzeko esfortzuak egingo direla, eta identifikatuz gero epaiketa batera eramanak izango direla eta zigorra egokia jasoko dutela errunduntzat joak badira, eta hori, bermeak errespetatuko dituen epaiketaren ondoren. Baina espero dugu halaber kaltetutako pertsonak ere arreata berezia jasoko dutela, bai gizartearen aldetik eta baita, ahal den neurrian, gaitza sortu dien pertsonaren aldetik ere bai: horretan datza gizarte zibilaren zibiltasuna, zibilizatu da. Zibilizazio prozesuaz gerta liteke mala prohibita diren horiek mala in se bilakatzea, estigma morala hartzen doazelako: delitu ekologikoa, zerga iruzurra, biolentzia.

### **87. Pertsona juridikoak delitua egin dezake? Eta Estatuak? Nola?**

Bai pertsona juridikoek eta baita estatuak delitua egin ditzakete, pertsona fisikoek bezala, arau penala ez errespetatuz (adb: explotazioa, delitu fiskalak,..).

Baina estatuko krimenena oso gai zaila da. Kasu hauetan, ekintza edota erabaki horien atzean gizaki norbanakoak egongo dira, baina bereizi egin behar da pertsona horiek euren kabuz aritu diren edo estatuaren izenean. Azken finean, estatu krimenaren atzetik aginte publikoaren abusua egongo da beti, biktima bati kalte egiten diona (adb: gerra krimenak, esklabutza, arrazakeria, genozidioa..)

### **88. Printzipioak: *nullum crimen, nulla pena sine lege*, azaldu.**

*nullum crimen, nulla pena sine lege*: "Ningún delito, ninguna pena sin ley" esan nahi du. Hau da, jarrera bat ezin da legez aurkakotzat jo, aurretik legeak ez badu delitutzat hartu. Gainera, zigor edo pena bat ekintzaileari ezartzeko jarduera egin baino lehen jarduera horrek zehazki dakarren zigorra zuzenbidean jasota egon behar du.

### **89. printzipioak: *ultima ratio*, azaldu**

*ultima ratio*: Penala azken fineko baliabidea beharko luke eta zigorra neurritzarrukoa izan behar du delitua den gaitzarekiko. Hori bai, neurtuta egon beharko da zigorra, hots, ez abusatua baina egokia: "begia begi truk" astakeria dirudi baina neurria dakar. "Bi begiak eta belarriak begi truk" berriz, neurritz kanpokoak izango litzateke.

### **90. Printzipioak: *ne bis in idem* azaldu.**

**ne bis in idem:** *“Nadie podrá ser procesado, ni sancionado más de una vez por un mismo hecho, siempre que se trate del mismo sujeto y fundamento.”* Hau da, pertsona bat ezin izango da ekintza berdinarengatik bi aldiz epaitua izan. Gaur egun, herrialde askotan Konstituzioan jasota dago oinarritzko eskubide bezala.

### **91. Inpunitatea v zigorkeria. Nola bereizten ditugu?**

Inpunitatea litzateke arau hauste bat bete duen pertsona batek zigorrik ez jasotzea. Zigorkeria berriz, arau hauste bat bete duen pertsona batek hori berdintzeko proportzionala ez den zigor bat, ondorio bat, jasotzea eta bete behar izatea.

### **92. Egilea eta beste erantzukizun mailak: akulu, laguntzaile estalari.**

Ardura maila desberdina daukate, baina haiek delituarekin zerikusia dutenez, horren garapenarekin, jarrera horiek ere zigorgarriak dira.

## **10. Eskubideak**

### **93. Eskubideak erlatiboak dira, zer esan nahi du horrek?**

Eskubideak sistemaren eta honen testuinguruaren arabera ulertu behar direla. Sistema bakoitzaren eskubideen arauak adierazten dute non hasi eta bukatzen den eskubidea, eta sistematik kanpo hauek ez dira existitzen. Hortaz, eskubideak erlatiboak direnez, kasu batzuetan mugatzerik badago, baldin eta bidezkotzerik badago (segurtasun publikoagatik, delituak ekiditeko prebentzio neurri gisa...). Baina beti ere, beste pertsonen eskubide eta askatasunak gureen muga izango dira.

*Eskubideak ezin dira bakarka ulertu, arautzen dituzten arauetatik aparte. Arlo batekin harremanetan egongo dira beti.*

*Eskubideak erlatiboak direnez, kasu batzuetan mugatzerik badago, baldin eta bidezkotzerik badago. Beste kasu batzuetan, eskubide batzuetarako salbuespenak egon daitezke. Horrela beti ere beste pertsonen eskubide eta askatasunak muga izango dira. Absolutuak eta inolaz ere mugarik edo salbuespenik onartzen ez duten eskubide gutxi dira: tortura eta tratu ankerren debekua, eskalbutza, zuzenbide penalaren legezkotasunaren printzipioak, non bis in idem barne. Beste eskubide batzuk oso babestuta daude, bizitzeko eskubidea, heriotza zigorraren debekua, lan bortxatuen debekua, askatasuna, auzitegiko publikotasunabakarrik salbuespen mugatuekin oztopa daitezke. Beste eskubide batzuk aldiz erlatiboak dira eta murriz eta salbuetsi daitezke bai Itunean eta baita Gutunean ere ondoko arrazoi edo bidezkotzeren baten arabera: ordenu publikoa eta segurtasun publikoa gordetzeko behar diren agintearen neurriak, delituak ekiditea helburu duten babes, detekzio edo prebentzio neurriak, segurtasun nazionalerako salbuespen neurriak (sitio, salbuespen, premi, alarma egoerak), osasuna eta morala zaintzeko hartu beharreko neurriak (adingabeak, izurriteak), botere judizialaren autoritatea eta inpartzialtasuna, herriaren ongizate ekonomikoa eta utilitate publikoa. Mugak, salbuespen eta murrizpenak beharrezkoak eta neurritzarrukoak eta legeak aurrikusiak behar dute.*

### **94. Nondik hasi, eskubidetik ala obligaziotik? Arrazoitu erantzuna**

Lehentasuna, gure ohituran, eskubideari ematen zaio. Eskubideak kaltetik atera dezakegu, salbuespen batekin, funsteko eskubideak. Beraz, lehendabizi, eskubidea egongo litzateke.

Eskubideak eta obligazioak erlazioak edo egoerak dira. Beste kultura juridiko askotan erlazioen muina edo hastapena eskubidea izan beharrean obligazioa da, eta guk ikastaro honetan ere bai, gaitzik ez egiteko loturari eman diogu garrantzia. Garbiago ikusten dugulako erremedio edo konponbidea ikuspegi horretatik. Gaitzik egiten ez dudan bitartean, ardura edo erantzukizun berezirik edota zerbaiterako obligaziorik ez dudan bitartean askatasun eremu bat daukat non nire ahalmenak edo eskumenak nire gogoaren arabera aintzintzeko. Nire obligazioak, erantzukizunak edo kontuemateak (kalteordainak) esijitu dakizkidake (ahal zaizkit esijitu). Baina nire askatasun eremua ezin zait tratu. Behar bada beste ez zaie gustatuko nire askatasun eremu hori nola erabiltzen dudan, behar bada baten batek pentsa dezake nagikerietan ari naizela.

### 95. Gauza batek izan dezake eskubiderik?

Eskubideak pertsonenak dira, ez gauzenak (Pertsona juridikoek ere bai eskubideak izan ditzakete).

### 96. Pertsona juridikoak eskubiderik izan dezake?

Bai, pertsona juridikoak nahiz fisikoak izan dezakete eskubideak, baita obligazioak ere.

### 97. Eskubideak eta askatasun eremuak nola sortzen dira?

Eskubidearekin bat obligazioa egongo da. Zein dator lehen? Eskubidea edo obligazioa? Gure kulturen lehentasuna eskubideari baina badaude beste ikuspegi batzuk gaitzetik eta obligazioetatik hasita eskubide definitzen dutenak. Nire askatasun eremua mugatua egongo da - obligazioak, ardurak, erantzukizunak. Horren barnean mugituko naiz betebeharren bat sortzen den arte; izan ere, momentu horretan nire askatasuna erabat mugatua geratuko da baina hau sortu arte, libre izango naiz. Libre naizela erantzukizunak sortu daitezke, moralak adb, baina ez juridikoak. Zuzenbidean askea izango zea.

	Betebeharrak	loturak
erantzukizuna	NUKLEOA (ASKATASUNA)* ardurak, emaitzak	obligazioak

\*politika, erlijioa, morala... - askatasuna mugatuko dute, gure ekintzak modu batera edo beste batera moldatuz eta hauetan eraginez.

### 98. Eskubide pasiboak eta interesak: azaldu erlazioa

Pertsonak gaitasuna dute (ahalmen pasiboa) eskubideak eta interesak izateko, nahiz eta gaitasun edo ahalmen aktiborik ez izan, baina euren interesa da beste inork kalterik eta gaitzik eta deliturik ez egitea (adibidez haurrei). Incapax izanda ere beste pertsona batek, capax den batek, euren izenean eta interesean defenditu ditzazke interes horiek auzibidean.

Eskubide pasiboak dira, beraz, funtsezkoena edo gutxienez gutxienekoak, hain zuzen ere, aritzeko gaitasun eta ahalmenik ez dutelako eskatzen, norbera eraginda izatea nahikoa izaki. Honen atzetik interesa dago, duintasuna ere bai, kalterik ez jasotzea eta zaindua izatea.

Eskubideen kasuan unibertsalak bilakatzen da dimentsio hau: duintasuna. Modu berezi batez tratatua (ez) izateko eskubidea, claim right edo stricto sensu.

### 99. Eskubidea – obligazioa ala eskubidea – eskubiderik eza: azaldu bereizketa (Hohfeld)

Eskubidea: Eskubidea da guk norbaitekiko edo zerbaitekiko dugun gure aldeko lotura juridikoa. Obligazioa: obligazioa da norbaitek eskubidearekiko duen lotura juridikoa, obligazioaren ondorioz eskubidea duenari zerbait zor dio.

Eskubide eza: Eskubide eza pribilegioen aurrean gertatzen da, norbaitek gauza batekiko obligazioa baldin badu, besteek ez dute eskubiderik horren gainean, baina ezta obligatorik ere.

*Hohfeld-en azterketa: rights-claims, duties, privileges, powers, liabilities, immunities. Hohfeld-en eskemaren arabera bereizketa egiten da bestaldekoen (X) eta elkar osagarriak (X----> Y) direnen artean.*

*Lehenengoei dagokionez: bestaldekoak (X)*

- *eskubidea (eskubide) ≠ eskubide eza right / no-right*
- *pribilegioa (askatasuna) ≠ obligazioa (lotura) derrigorra privilege / duty*
- *ahalmena (eskumen) ≠ eskugabezia (ezina) power / disability*
- *imunitatea (babesa) ≠ eskumenpea (menpeko) immunity / liability*

*Bigarrenak: elkar osagarriak (X--->Y)*

- *eskubidea ↔ obligazioa (lotura)*
- *pribilegioa ↔ eskubide eza*
- *eskumena ↔ eskumenpea*
- *imunitatea ↔ eskugabezia*

*Honekin ikusten dugu eskubide hitzaren atzetik kontzeptu ezberdinak daudela, zerikusia dutenak.*

### 100. Eskumena – eskugabezia ala eskumena – eskumenpea: azaldu bereizketa

Eskumena zerbait egiteko gaitasuna eta boterea da. Eskugabezia gauza hori egiteko gaitasuna edo boterea ez edukitzea da, hau da, eskumenik ez izatea. Eskumenpea norbaitek eskumena duenarekiko duen erlazioa da, eskumenpean dagoena eskumendunaren menpe egongo da.

*Hohfeld-en azterketa: rights-claims, duties, privileges, powers, liabilities, immunities. Hohfeld-en eskemaren arabera bereizketa egiten da bestaldekoen (X) eta elkar osagarriak (X----> Y) direnen artean.*

*Lehenengoei dagokionez: bestaldekoak (X)*

- *eskubidea (eskubide) ≠ eskubide eza right / no-right*
- *pribilegioa (askatasuna) ≠ obligazioa (lotura) derrigorra privilege / duty*

- *ahalmena (eskumen) ≠ eskugabezia (ezina) power / disability*
- *imunitatea (babesa) ≠ eskumenpea (menpeko) immunity / liability*

Bigarrenak: elkar osagarriak (X→Y)

- *eskubidea ↔ obligazioa (lotura)*
- *pribilegioa ↔ eskubide eza*
- *eskumena ↔ eskumenpea*
- *imunitatea ↔ eskugabezia*

Honekin ikusten dugu eskubide hitzaren atzetik kontzeptu ezberdinak daudela, zerkusia dutenak.

### 101. Zer da imunitatea? (Hofeld)

Giza eskubideak babes mota berezi bat behar dute. Konpainien funtsezko eskubide horiek sortzen dira botere publikoek kalterik ez egiteko duten obligazioagatik eta obligazio horretatik sortzen dira askatasun eta obligazioak.

### 102. Zer da askatasuna edo pribilegioa (Hohfeld)? Eta zein da bere korrelatiboa (X eta Y)

#### 11. Giza Eskubideak

### 103. Zer esan nahi du giza eskubideak absolutu izatea?

Mugarik eta salbuespenik gabeko eskubideak dira eskubide absolutuak.

Eskubideak erlatiboak direnez, kasu batzuetan mugatzerik badago, baldin eta bidezkotzerik badago. Beste kasu batzuetan, eskubide batzuetarako salbuespenak egon daitezke. Horrela beti ere beste pertsonen eskubide eta askatasunak muga izango dira. Absolutuak eta inolaz ere mugarik edo salbuespenik onartzen ez duten eskubide gutxi dira: tortura eta tratu ankerren debekua, eskalbutza, zuzenbide penalaren legezkotasunaren printzipioak,...

### 104. Zer esan nahi du giza eskubideak unibertsalak izatea?

Eskubide batek sistema guztietarako balioko balu (hala izan beharko lukelako) unibertsala litzateke. Giza eskubidea gizaki oroien eskubide direnez, unibertsalizatu egin dira (aldarrikapen unibertsala), babesa dute mundu mailan.

### 105. Nola bereziko zenuke giza eskubideak eta funtsezko eskubideak?

- Giza eskubideak, pertsona guztienak dira, berdin da zer nazionalitate izan, gizaki hutsa hartzen da kontutan.
- Funsezko eskubideak berriz, eskubide motak nahastu egiten ditu, batzuk pertsona guztiei aitortzen zaizkie eta beste batzuk berriz nazionalen besterik ez zaizkie aitortzen.

## 106. Zer harreman dago giza eskubideen eta iraultzen artean?

Giza Eskubideak askotan iraultzen ondorio dira. Gizakion boterearen eta zapalkuntzaren aurkako borrokaren fruitu dira, gizakion eskubideak aldarrikatu dira naturalak balira bezala, alegia, gizakiok baditugu eta aitortu behar zaizkigu/dizkigute aginte publikoaren aldetik. Ez ditugu eskubide hauek aginteek aitortzen edo arrezagutzen dizkigutelako, ez lehentasuna gure ikuspegitik pertsonok daukagu, arau erabiltzaleok arau egile gara eta eskubidedunak eta baita obligaziodunak. Horregatik Giza Eskubideak gureak dira eta aitortu eta bermatu behar dizkigute. Kontratu soziala egiten dugu babes hori ziurtatzeko baina aginteak errespetatu behar ditu. Horregatik 1966.ko Nazioarteko Hitzarmenek euren hitzaurrean espreski diote herrialde batean Giza Eskubideak ez badira errespetatzen orduan iraultza bidezkoturik dagoela estatu bortzatzailearen aurka. Beraz Estatuaren legitimazioa Giza Eskubideen errespetoan kokatzen, ez beste inon, ez nazioaren kontzeptuan, ez indarrean.

## 107. Zer da eskubideen pisatze eta balantzatzea?

Ronald Dworkin izango da gai honetan gure teoriko nagusia: R. Dworkin, TRS, rights as trumps ; rights v policies, alegia eskubide eta askatasunak gure babesak dira eta beste, botere publikoa direla edo pertsona pribatuak direla, mugak eta lerro gorriak ezartzen dizkiete, gure askatasuna ezin dutelako inbaditu edo gainditu.

Dworkin konturatzen da halere gure eskubideetako asko amaitzen dutela bestean eskubideak hasten diren puntuan, Kanten urrezko legearekin bezala, eta honek dakar nire eta bestean eskubide eta askatasunak pisatzearen, neurtzearen eta orekatzearen beharra, balantzan bezala. "Weighing and balancing rights"--> adierazpenaren eskubidea daukat baina ezin dut beste pertsonen eskubidea urratu.

## 108. Zein da giza eskubideen lehenbiziko eta bigarren belaunaldien sintesia?

### EBOLUZIO HISTORIKOA, BELAUNALDIAK

1. Belaunaldia askatasuna eta babesa: nortzuk dira titularrak? Gizona, jabea, kristaua, zuria, eta hemendikzabaltzen joan da gauregun arte: esklabu beltzak, emakumeak, desjabetuak, langileak, errefuxiatuak, paperik gabeko etorkinak, beste erlijioetakoak (kulturaniztasuna), LGTB,..

Eskubideen jatorria batez ere habeas corpus erdi aroko Gutun edo Foruetan daude. Ikuspegi moderno batetik, bi epetan sortzen dira: errenazimenduan eta erreformarekin batera erlijio eskubideak aldarrikatzen dira (sinismen, kontzientzia, kulto eskubideak) eta dokumentu garrantzitsu bat dugu Nanteseko ediktoa, baina estatu konfesionalek kontrareforman ere bai pertsekuzioak ezarri zituzten eta Ipar Ameriketako lehenengo koloniak errefuxiatu erlijioso politikoek eratu zituzten. Ondoren eskubide zibil-politikoak ezartzen dira, EEBBko eta Frantziako Iraultzen ondorioz. Eskubide burgesak Ilustrazioarekin jaio ziren bereziki kontratu sozialaren teoriaren eskutik, baina iraultze horietan positibatu ziren bereziki.

### *Eskubide liberalak, burgesak, zibil eta politikoak*

Zeintzuk dira eskubideak? Zibil eta politikoak, erlijio askatasuna, iritzi eta ideologia askatasuna, pentsatzeko, adierazteko, praktikatzeko, elkartzeko beste lagunekin, alkartzeko ere bai, eta intimitatearekin zerikusia duten eskubideak etxean, familian, korrespondentzian, eta baita ere berdintasun formala (equality before the law, berdintasuna legearen aurrean) alegia bereizketarik eza, eta auzibidean ere norberaren askatasun eremua errespetatua izan dadin: errugabetasunaren presuntzioa, inpartzialidadea, bidezko epaiketa, akusazioaren

zehaztasunetaz informatua izatea, defentsarako eskubidea, habeas corpus eta komunikazioa, epaile naturala, norbere buruaren kontra ez aitortzeko eskubidea, tortura eta tratu txarren debekua. Ikusten denez oso garrantzitsuak dira eskubide hauek. Hauei gehitzen zaizkie hiritarren eskubideak: partehartze politikoa, hautagaitza eskubideak, ordezkaritza eskubideak, gauza publikoan aritzeko eskubidea, eskubide hauek egikartzeko beharrezkoa den informazio eskubidea: informazioak eta iritziak emateko eta jasotzeko (prentsa, medioak, etab). Eskubide zibilen artean aurkitzen dugu ofizio edo lanbiderako eskubidea, norbere sostengua irabaztekoa, eta kontratuaren bitartez besteekin tratuak egiteko eskubidea, merkatal trafikoan. Eskubide hauen artean kritikoena jabetzarako eskubidea dago. Ez da bakarrik ohiko eskubide bat bezala ikusten, funtsezko eskubidetzat jotzen da, eta neurri handi batean pertsonaren etxea eta lurra bortxazko desjabetzetik eta lapurretatik babesten du, baina era absolutuan ulertuta, bazterketa ere badakar.

1. Belaunaldia berdintasuna eskubide sozialak eta elkartasuna: Marxen eraginez eta eskubide zibil eta politiko "burges" hauek ankamotz geratzen direla pentsatuta hona Leninen galdera: askatasuna zertarako? Ez badauzkat bizitzeko behar ditudan baliabideak – janaria, etxea, jantziak, Leninen errore edo akatsa: eskubide zibilak gutxiestea edo sakrifikatzea, aukera berdintasuna, benetazko berdintasuna, gutxieneko bizibaldintzak, norberaren duintasuna eta pertsona bezala aukerak egiteko gaitasuna benetazkoa izan dadin behar diren ondasunak: hezkuntza, osasuna, sostengua, gizartean txertatzeko aukerak, kultura, alegia

Zeintzuk dira eskubide hauek? Soldata justua, lan baldintza egokiak, segurantza soziala, osasun laguntza, doako derrigorrezko hezkuntza, haurren babesa (hauek jasota daude Europar Gutun Sozialean, tamalez soft law dena, baina hauetako gehienak jasota daude egun Europar Gutunean.

Sozialdemokraziaren sintesia – John Rawls

Bi belaunaldien sintesia sozialdemokrazia liberala, sozialismo demokratikoa, kristau- sozialismoa, sozialismo utopikoa, ideal gisa (ez alderdi politiko bat edo beste)

Giza eskubideen lehendabiziko sintesia askatasuna da. Hau da, askatasuna dagoen bitartean inor ezin da da bertan sartu, zeuk erabakitzen duzu guztia. Bigarren belaunaldiko sintesia berriz, berdintasuna bi erataria ulertu daitekeela da. Alde batetik, diferentziarik eza, eta bestetik, aukera berdintasuna bezala.

### **109. Zertaz doaz lehenbiziko belaunaldien giza eskubideak?**

1. belaunaldia askatasuna eta babesa: nortzuk dira titularrak? Gizona, jabea, kristaua, zuria, eta hemendik zabaltzen joan da gauegun arte: esklabu beltzak, emakumeak, desjabetuak, langileak, errefuxiatuak, paperik gabeko etorkinak, beste erlijioetakoak (kulturaniztasuna), LGTB,..

Eskubideen jatorria batez ere habeas corpus erdi aroko Gutun edo Foruetan daude. Ikuspegi moderno batetik, bi epetan sortzen dira: errenazimenduan eta erreformarekin batera erlijio eskubideak aldarrikatzen dira (sinismen, kontzientzia, kulto eskubideak) eta dokumentu garrantzitsu bat dugu Nanteseko ediktoa, baina estatu konfesionalek kontrareforman ere bai pertsekuzioak ezarri zituzten eta Ipar Ameriketako lehenengo koloniak errefuxiatu erlijioso politikoei eratu zituzten. Ondoren eskubide zibil-politikoak ezartzen dira, EEBBko eta Frantziako Iraultzen ondorioz. Eskubide burgesak Ilustrazioarekin jaio ziren bereziki kontratu sozialaren teoriaren eskutik, baina iraultze horietan positibatu ziren bereziki.

*Eskubide liberalak, burgesak, zibil eta politikoak*

Zeintzuk dira eskubideak? Zibil eta politikoak, erlijio askatasuna, iritzi eta ideologia askatasuna, pentsatzeko, adierazteko, praktikatzeko, elkartzeko beste lagunekin, alkartzeko ere bai, eta intimitatearekin zerikusia duten eskubideak etxean, familian, korrespondentzian, eta baita ere berdintasun formala (equality before the law, berdintasuna legearen aurrean) alegia bereizketarik eza, eta auzibidean ere norberaren askatasun eremua errespetatua izan dadin: errugabetasunaren presuntzioa, inpartzialidadea, bidezko epaiketa, akusazioaren zehaztasunetaz informatua izatea, defentsarako eskubidea, habeas corpus eta komunikazioa, epaile naturala,

norbere buruaren kontra ez aitortzeko eskubidea, tortura eta tratu txarren debekua. Ikusten denez oso garrantzitsuak dira eskubide hauek. Hauei gehitzen zaizkie hiritarren eskubideak: partehartze politikoa, hautagaitza eskubideak, ordezkaritza eskubideak, gauza publikoan aritzeko eskubidea, eskubide hauek egikaritzeko beharrezkoa den informazio eskubidea: informazioak eta iritziak emateko eta jasotzeko (prentsa, medioak, etab). Eskubide zibilen artean aurkitzen dugu ofizio edo lanbiderako eskubidea, norbere sostengua irabaztekoa, eta kontratuaren bitartez besteekin tratuak egiteko eskubidea, merkatal trafikoan. Eskubide hauen artean kritikoena jabetzarako eskubidea dago. Ez da bakarrik ohiko eskubide bat bezala ikusten, funtsezko eskubidetzat jotzen da, eta neurri handi batean pertsonaren etxea eta lurra bortxazko desjabetzetik eta lapurretatik babesten du, baina era absolutuan ulertuta, bazterketa ere badakar.

### **110. Ba al dago nazioarteko tresna juridikorik bigarren belaunaldiko giza eskubidetan?**

Bigarren belaunaldiko eskubideetan ez dago tresna juridikorik. Dauden tresna juridikoak eskubideen ingurukoak dira. Hauek jasota daude Europar Gutun Sozialean, tamalez soft law dena, baina hauetako gehienak jasota daude egun Europar Gutunean.

### **111. Europa mailan zeintzuk dira tresna nagusiak giza eskubideen babesean?**

Europar Giza Eskubideen babesa instituzionalizatuta dago eta bermatuta neurri oso altuan (munduko beste sistemekin erkatuz gero). Badago Europar Giza Eskubideen Auzitegia, eta honen aurrean Itunak jasotzen dituen eskubideen inguruan edozein Estatu Itunkide baten aurkako helegitea aurkeztea dago. Estatuaren eskutik (legez edo erabaki indibidualaz) urraketa jasotzen duen pertsonak lehenbizikoz urraketa eragin dion Estatuako jurisdikzioan auzibideak edo helegiteak agortu behar ditu Estrasburgon egoitza duen Europar Auzitegiaren atean jo ahal izateko, eta honek bere kausa aztertuko du eta adieraz dezake Estatuak pertsonaren eskubidea urratu duela (Itunean jasotzen den edozein eskubide, 2. artikulutik 13.era) eta kalteordainak ere erabaki ditzazke.

Bi tresna nagusi daude:

1. Ituna: 1950, Europako Kontseiluan sortu zen Europar Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Ituna.
2. Europar Batasunaren Funtsezko Eskubideen Gutuna (Europar Batasunean onartu zena 1999 eta 2009ko abenduaren 1etik indarrean dagoena).

### **112. Pertsona juridikoek giza eskubiderik izan dezakete? Arrazoitu erantzuna**

Ez. Giza eskubideek suposatzen duten babes mota berezia gizakientzako da, eta ezin dugu suposatu gizakion babesa berehala korporazioei zabaldu behar zaienik, eskubide autonomo gisa, zabalteketan gizakion interesatarako tresna diren heinean

Hala eta guztiz ere batzuetan pertsona juridikoek funtsezko eskubide batzuk aitortzen zaizkie (auzietan eskubide prozesalak, errejistroak, non-incrimination). Horregatik uste dugu bereizketa egin daitekeela giza eta funtsezko eskubideen artean: konpainiek izan dezakete funtsezko eskubide batzuk (prozesalak batez ere) baina ez dira giza eskubideak, ez dituzte gizaki izateagatik baina hain zuzen ere aginte publikoak dituen mugengatik.

### **113. Eskubide eta giza eskubide nola bereiz dezakegu?**



Eskubidea institutu juridiko orokor bezala defini genezake, eta hortik eratortzen dira bestelako eskubideak, horien artean, giza eskubideak. Orduan, giza eskubideak, gizaki guztiei, unibertsalki aitortzen zaizkien eskubideak dira, haien nazionalitateak beste.

#### **114. Zeintzuk dira giza eskubideen amaierako arauak?**

Pertsonaren heriotza litzateke.

#### **115. Zer baldintzak edo arauak eratzten dute giza eskubidea, zein da giza eskubideen arau eratzailerak?**

Pertsona fisikoa izatea.

#### **116. Zergatik da garrantzitsua giza eskubideen ondoriozko arauak?**

Giza eskubideen ondoriozko arauak pertsona guztien, pertsona izateagatik, egikaritzeko aukera ematen dutelako, eta haien herrialdeetako instantzia jurisdikzionalen aurrean aurkezteko.

## **12. Zuzenbidearen Aplikazioaren Eredua**

#### **117. Zuzenbidearen aplikazio judizialean behin gatazka identifikatu dugunean zein da hurrengo pausua edo erabakia?**

Gatazkari aplika litzaiokeen xedapena aukeratu behar dugu *1-zuzenbidean* kokatuta egongo dena. Normalean auzilariak proposatzen dute xedapen hori, baina xedapen desberdinak izan daitezke. Nahiz eta auzilariak proposatu xedapena, epaileak beste xedapen bat aukera dezake, aplikazioarako egokiagoa iruditzen zaiolako. Baina hemen ere mugak egon daitezke: ultra petita joatea adibidez

#### **118. Nola osatzen da silogismo judizialaren premisa nagusia?**

1. Aplikagarri den xedapena aukeratu:

1. Behin gatazka identifikatzean gatazkari aplika dakioken xedapena aukeratu behar da.
2. Xedapena identifikatzean, horren balizokotasunaren galdera argitu behar dugu, ea xedapena balizokoa den edo ez, tresna juridiko batean ote dagoen, balizko iturri batean kokatua, eta kontrolatu behar da xedapen hori ez dela orain arte baliogabetua izan goi mailako auzitegiren batean.

2. Xedapena interpretatzen: araua. Behin aplikagarri den xedapena identifikatu dugun, interpretatu beharra dago, esanahi zehatza emanaz **HEMEN XEDAPENA ARAUA BILAKATZEN DA**, arau aplikagarria 2zuzenbidearen mailan

Araua daukagunean formulatuko dugu premisa nagusia sortzeko, modu unibertsalean. Arauari xedapenaren janzkera emango diogu, alegia xedapenak erabiltzen dituen hitzekin.

#### **119. Zein da silogismo judizialaren premisa txikia?**

Egitateak edo gertakariak forgatu eta frogatutakoa sailkatuz hizkera juridikoan. Premisa txikia premisa nagusiaren kategorian formulatzen da, silogismoa atera ahal izateko, ondorio gisa. Kontuz, askotan ondorioetan diskrezionalitatea dago, margen bat ondorio zehatza ateratzeko, eta berriz silogismo bati ekingogenioke.

### **120. Aplikazio judizialean xedapen juridikoa nola edo noiz bilakatzen da arau?**

Xedapenari esan nahi bat ematea da interpretazioa, eta esan nahi hori da araua. Hemen interpretazioa esatearekin nahikoa. Azken finean, araua xedapenetik ateratzen den interpretazioa da.

### **121. Zer gertatzen da aplikazioan ez badugu topatzen gatazkari aplikatzen zaion xedapenik? Zer egingo dugu?**

Hutsuneak dauzkagu eta hutsuneak betetzeko metodoak dira auto osaketak eta kanpo osaketak (37. galdera). Badakigu hutsunea nola betetzen dugun: tankerakotasuna edo analogia, printzipioak,... alegia autobetekizuna eta kanpobetekizuna.

## **13. Interpretazioa**

### **122. Interpretatio contra legem zer da? Nola ikusten duzu?**

Legegileak (legem) A Araua --> xedapena --> b (>a) araua (epaileak: interpretatio) eta interpretatio contra legem (epaileak ateratako arauak talka egiten du legegileak emandakoarekin. Interpretazio hori ezinezkoa da.

### **123. Argitasuna dagoenean nolako interpretazioa egiten da?**

Argitasuna – acte clair – in claris non fit interpretatio edo clara non sunt interpretanda.

Xedapena --> araua

Ulermena nahikoa da eta eskuarki hauxe da gertatzen dena, ez dugu besterik behar, xedapena irakurri eta ulertu egiten dugu eta aplikatzeko prest gaude, beste luzapenik gabe. Hau da instintiboki interpreteak egiten dutena hizkuntza batetik bestera ahozko diskurtsoa batbatekotasunean itzultzen dutenean.

Xedapena iluna bada eta zalantzak baditugu: argitu beharra dago, eta horretarako xedapena interpretatu beharko dugu.

### **124. Interpretatio sensu largo eta stricto sensu nola bereizi?**

Egoera hauek garamatzate interpretazioaren hiru zentzu desberdin bereiztera (J. Wróblewski):

1. Interpretatio sensu largissimo: xedapena zer den ulertzen dugu
2. Interpretatio sensu largo (edo lato sensu): ulermena, ikurrei esanahi emanaz eta hizkuntzaren erregelak jarraituz, ohiko esanahiak, ohiko sintaxia, kokatuta gauden testuinguruan ez da zalantzarik sortzen
3. Interpretatio stricto sensu: zalantza dagoenean argitu behar dugu, interpretazio metodoak erabiliz

## 125. Zalantza dagoenean nola interpretatu?

Interpretazio zalantzak sortzen direnean interpretazio metodoak erabili behar dira. Interpretazio metodo horiek hurrengo hauek dira:

- Hizkuntzazko zalantzak: Baliteke xedapenean hitz anbiguo edo iluntasunak aurkitzea. Zalantza hauek, semantika eta sintaxia ondo aztertuz konpontzen dira. Sistema eleanitzetan esaterako, komenigarria da xedapenaren jatorrizko hizkuntzan dagoen bertsioa erabiltzea.
- Arazo sistemikoak: Hizkuntzaren aldetik araua ondo ulertuta ere, gerta liteke esanahia sistema juridikoan ongi ez sartzea (adb, beste arau baten aurka egin dezake, ez da oso koherentea...) Halakoetan, xedapenaren testuingurua aztertuz konpontzen da, xedapena non kokatua dagoen ulertzeko, edo beste xedapen batzuekin osatuz edo konparatuz.
- Arazo praktikoak: xedapenaren helburua aztertuz, eman nahi den interpretazioarekin helburua betetzera lagunduko den aztertuz eta emandako interpretazioak izango dituen ondorioak kontsideratuz konpontzen dira.

*Komunikazioek (mezuek) ez digute esaten argiak ala ilunak diren, ez datoz alde aurretik sailkatuta eta testu bat bat batean ulertzen den ala ez egoera pragmatikoak esango digu. Gero abokatu jaiola etorriko da eta ulertzen genuen testuaren gainean zalantzak sorraraziko dizkigu, eta ordura arte argi zirudiena, ilundu egiten da (hori da abokatuaren lana, kolokan jartzea, zalantza sorraraztea, eta hori da askotan abokatuei fama txarra eman dion gaitasuna). Pertsona batentzat argia dena beste batentzat arazotsua edo lausoa izan daiteke. Azken finean epaileak erabakiko du xedapena nahiko argi ote den ulermen zuzen batean aplikatzeko modukoa, ala benetan interpretazio zehatzagorik behar ote duen.*

## 126. Zergatik sortzen dira interpretazio zalantzak? (hiru sail nagusi)

1. Hizkuntzazko arrazoiak (arrazoi semiotikoak). Baliteke (i) arauak hitz ilunak edo anbiguoak erabiltzea (iluntasun semantikoak: polisemia —esanahi bat baino gehiago—, sinonimia —antzeko bi esanahi—, esanahi berezi edo espezialduak, hitz teknikoak, hitz orokorrak eta zehaztugabeak), edo (ii) araua bera iluna izatea (perpau mendeko eta konplexuetan iluntasun sintaktikoak eta zalantza pragmatikoak egon daitezke (arauak zer esaten digu? Zer ari zaigu araua, jarraibideak ematen? abusuak ematen? mehatxu egiten? zerbait antolatzen? helburuak proposatzen? informazioa ematen? zerbait definitzen? idealak adierazten? eskubideak aurrezagutzen? betebeharrak jartzen?) Hori guztia jakitea interesgarria da araua interpretatzeko: araua etendako komunikazioaren osagaia da eta jakin behar dugu komunikazio horrek zer lortu nahi zuen edo duen. Batzuetan, hori ere ez dago oso argi, eta informazio gehiago bildu behar izaten da.
2. Arazoi sistemikoak. Hizkuntzaren aldetik araua ondo ulertuta ere (interpretazioa, zentzu zabalean), gerta liteke aruari hasieran ematen diogun esanahia sistema juridikoan ongi ez sartzea. Adibidez, sistema juridikoan baliozkoa den arau baten aurka egin dezake, baliozko arau horrekin nekez uztar daiteke, ez da oso koherentea arau multzo batekiko, edo ez dio jarraitzen sartzen den arau multzoaren teknikari. Halako kasuetan, bertan behera uzten da bat-bateko interpretazioa, eta arau-sistemarekin modu egokienean uztartzen den esanahia ematen zaio aruari.
3. Arazoi praktikoak (edo dinamikoak). Azkenik, hizkuntzaren aldetik edo sistemikoki arazorik ez izanda ere, bat-bateko esanahia emanda ondorio bitxiak sor daitezke; hau da, arau multzo batek lortu nahi dituen helburuak erabat galtzen dira proposatzen den esanahiarekin. Arau horiekin zerbait lortu nahi dela pentsatzen delako sortzen dira kezka horiek pragmatikaren ikuspegitik. Eta aruari

bat-bateko esanahia ematen badiogu (zentzu zabaleko interpretazioak eskaintzen diguna), arauak ez du zentzurik; ez du ez buru ez hanka, zuzenbidearen arabera helburu onartezin bati dagokio, ez da batere eraginkorra, edo ondorio kezkarrietara garamatza.

## 127. Nola konpontzen dira interpretazio zalantzak? (hiru sail nagusi)

1. Hizkuntzazkoak (lingüísticos): batez ere sintaxia (egitura) eta semantika (esanahia, zuzenbidezko xedapenek erabiltzen dituzten kontzeptuen artean batzuk dira orokorrak, hizkuntza arruntarenak, eta beste batzuk dira juridikoak edo teknikoak; gogoratu oinarrizko zuzenbidezko institutak edo kontzeptuak azaltzean zenbat ñabardurak egin ditugun). Zuzenbidean erabiltzen diren hitz asko ambiguoak dira, ikunak, zirriborrotsuak, zehazgabeak, edo esanhi desberdinak eduki ditzazke: hona adibide batzuk Reasonable, grave, abusivo, sentimientos, vejar, escarnio, incitar, hostilidad, odio, batzutan erreferentzia ez dago batere argi: “quienes no profesen creencia alguna” ba dago inor batere sinesmenik ez duenik?

Bestetan sintaxian dago arazoa, luzeegia dela, edo menpeko perpausak ez dira argi artikulatzen.

Eleanitasunaren egoera berezia interpretatzeko orduan. Sistema edo zuzenbide batzuk eleanitzak dira eta orduan lehenengo gakoa da xedapenaren hizkuntza ofizial desberdinetako bertsioak erkatzea. Batzutan hizkuntza ofizialen artean bat egoten da autentikoa dena baina gure kasuan ofizial-kidetasunak suposatzen du berdin balio dutela: euskerazko eta gaztelerazko bertsioa, baina gerta liteke epaileak ez jakitea eta orduan abokatuak azalpenak eman beharko ditu euskerazko bertsiotik erabiltzen dituen argumentuak. Europar Batasuneko zuzenbidea ere (xedapenak) hizkuntza anitzetan dago ofizial, 21 hizkuntzetan: zoaz jakitera egoera horietan zein den legegileak buruan zeukan araua...

2. Sistemikoak: xedapena non kokatuta dagoen begiratzten dute eta horren arabera interpretatzen. Hauek bi motatakoak dira:
  - 2.1. Sedes materiae: testuaren kontestua, alegia non kokatzen den xedapena? Izan daiteke artikulua zati bat artikulua osoarekin bat irakurtzen dugula, edo atal osoarekin, edo zatiarekin edo lege osoarekin edo beste lege batzuekin, edo sistema osoarekin, alegia zoom-a zehatzagoa edo zabalagoa egin dezakegu ulertzeko asmotan.
  - 2.2. Argumentu logikoak: behin aukeratzen dugunean zein beste xedapenekin osatu edo erkatu, orduan arrazoak ateratzen ditugu: analogia, antzekotasuna, tankerakotasuna (a pari argumentuak), diferentzia, (a contrario argumentua), a fortiori argumentua, ad absurdum argumentua, ad repetitionem, ad intra, ad extra, ad liminem, ad hominem.
3. Dinamikoak (praktikoak) argumentu hauek hiru gauza desberdinei begiratzten diete, eta beraz hiru motatakoak dira:
  - 3.1. Teleologikoak, zein da xedapenaren xedea? Zer helburu bilatzen du xedapenak edo bera kokatuta dagoen legeak? Zeratarako onartu zen? Zernolako problema sozialari aurre egiteko?
  - 3.2. Funtzionala, edo effet utile, edo économie: Interpretazio bat edo beste emanaz lortuko al dugu xedapenak edo legeak bilatzen duen helburua hobeto betetzea? Praktiko al da proposatzen dugun interpretazioa?
  - 3.3. Ondoriozko argumentuak: proposatzen den xedapenaren interpretazioak zernolako ondorioak ekarriko ditu mundu errealean? Edo zuzenbidean bertan? Horiexek dira funtsean interpretazio argumentuak...

### 128. Zer da *sedes materiae*?

Testuaren kontestua, alegia, non kokatzen den xedapena. Izan daiteke artikuluaen zatia bat artikulua osoarekin bat irakurtzen dugula, edo atal osoarekin, edo zatiarekin edo lege osoarekin edo beste lege batzuekin, edo sistema osoarekin, alegia zoom-a zehatzagoa edo zabalagoa egin dezakegu ulertzeko asmotan

### 129. Interpretazio Argumentu sistemikoak zer dira?

Interpretazio argumentu sistemikoek xedapena non dagoen kokatua begiratzen dute eta ondoren horren arabera interpretatu. Hauek bi motatakoak izan daitezke:

- *Sedes materiae*: Testuaren kontestua zein den azaltzen du, hau da, non kokatzen den xedapena. Kontestu hori zabalagoa edo zehatzagoa izan daiteke.
- Argumentu logikoak: Aukeratzen dugunean zein beste xedapenekin osatu, orduan arrazoiak ematen dira:  
analogia, antzekotasuna, tankerakotasuna, diferentzia, a fortiori argumentua, ad absurdum argumentua, ad repetitionem, ad intra, ad extra, ad liminem, ad hominem.

### 130. Eleaniztasunean zer egin?

Sistema edo zuzenbide batzuk eleanitzak dira eta orduan lehenengo gako da xedapenaren hizkuntza ofizial desberdinetako bertsioak erkatzea. Batzuetan hizkuntza ofizialen artean bat egoten da autentikoa dena baina gure kasuan ofizial-kidetasunak suposatzen du berdin balio dutela: euskerazko eta gaztelarazko bertsioa, baina gerta liteke epaileak ez jakitea eta orduan abokatuak azalpenak eman beharko ditu euskerazko bertsiotik erabiltzen dituen argumentuak. Europar Batasuneko zuzenbidea ere (xedapenak) hizkuntza anitzetan dago ofizial, 21 hizkuntzetan: zoaz jakitera egoera horietan zein den legegileak buruan zeukan araua...

### 132. Hiru motatakoak dira interpretazioko argumentu dinamikoak (praktikoak), aipatu eta azaldu

Dinamikoak (praktikoak) argumentu hauek hiru gauza desberdinei begiratzen diete, eta beraz hiru motatakoak dira:

1. Teleologikoak, zein da xedapenaren xedea? Zer helburu bilatzen du xedapenak edo bera kokatuta dagoen legeak? Zeratarako onartu zen? Zernolako problema sozialari aurre egiteko?
2. Funtzionala, edo *effet utile*, edo *économie*: Interpretazio bat edo beste emanaz lortuko al dugu xedapenak edo legeak bilatzen duen helburua hobeto betetzea? Praktiko al da proposatzen dugun interpretazioa?
3. Ondoriozko argumentuak: proposatzen den xedapenaren interpretazioak zernolako ondorioak ekarriko ditu mundu errealean? Edo zuzenbidean bertan?

### 133. Zer dira argumentu teleologikoak?

Xedapenen problematizazioak 3 taldetan sailkatzen dira. Eta horietako bat argumentu dinamikoak dira, eta hauek 3 gauza desberdinei begiratzen diete. Mota horietako bat argumentu teleologikoak dira. Honek hainbat

galderei erantzuten die: zein da xedapenaren xedea? Zer helburu bilatzen du xedapenak edo bera kokatuta dagoen legeak? Zeratarako onartu zen? Zernolako problema sozialari aurre egiteko?

### **134. Zer dira ondorioen arabeko interpretazio argumentuak?**

Esaten zaie argumentu konsekuenzialistak. Interpretatzeko argumentu batzuk begiratzen dutenak, zein ondorioetara eraman dezaketen interpretazio batek edo beste batek, eta egokiena den ondorioa aukeratzeko.

### **135. Eman interpretazioaren diskurtso arautzaile baten adibidea**

Halaber ez bakarrik ikusi nola egiten den baina agindu nola egin behar den, arautu nola interpretatu behar den: interpretazio arauak, gomendioak edo gidalerroak eman.

- Espainiako kode zibilak bere 3,1 artikuluan interpretazio direktibak hornitzen dizkigu: *“Las normas se interpretarán según el sentido propio de sus palabras, en relación con el contexto, los antecedentes históricos y legislativos y la realidad social del tiempo en que han de ser aplicadas, atendiendo fundamentalmente al espíritu y finalidad de aquellas”*. Ikusten den bezala xedapena bera interpretatu beharra dago: zer da sentido propio? Zeintzuk dira de aquellas?, zein da hitzen espiritua? Ala arauena da? Antecedentes históricos eta legislativos nola bereizi? Eta metodoen arteko hurrenkerarik ba al dago?
- Beste adibide bat, 93/13/CE DIREKTIBA, 3(1) eta 3(2) artikulua, edo 4. artikulua: *“el carácter abusivo de una cláusula ocntractual se apreciará teniendo en cuenta la naturaleza de los bienes o servicios que sean objeto del contrato y considerando todas las circunstancias que concurran en su celebración...”* edo jakiteko zer den abusivo, zerrenda ireki bat eman daiteke adibide gisa, 3(3) artikulua: *“el anexo de la presente directiva contiene una lista indicativa y no exhaustiva de cláusulas que pueden ser declaradas abusivas”*

### **136. Interpretaziorako gidalerroek interpretazio arazoak konpontzen dizkigute ondo aplikatuz gero. Egia al da? Zergatik bai ala zergatik ez?**

Ez, erraztu egiten du baina ez du konpontzen arazo guztiak.

Baina ahalko genuke halaber ez bakarrik ikusi nola egiten den baina agindu nola egin behar den, arautu nola interpretatu behar den: interpretazio arauak, gomendioak edo gidalerroak eman.

- Espainiako kode zibilak bere 3,1 artikuluan interpretazio direktibak hornitzen dizkigu: *“Las normas se interpretarán según el sentido propio de sus palabras, en relación con el contexto, los antecedentes históricos y legislativos y la realidad social del tiempo en que han de ser aplicadas, atendiendo fundamentalmente al espíritu y finalidad de aquellas”*. Ikusten den bezala xedapena bera interpretatu beharra dago: zer da sentido propio? Zeintzuk dira de aquellas?, zein da hitzen espiritua? Ala arauena da? Antecedentes históricos eta legislativos nola bereizi? Eta metodoen arteko hurrenkerarik ba al dago?
- Beste adibide bat, 93/13/CE DIREKTIBA, 3(1) eta 3(2) artikulua, edo 4. artikulua: *“el carácter abusivo de una cláusula ocntractual se apreciará teniendo en cuenta la naturaleza de los bienes o servicios que sean objeto del contrato y considerando todas las circunstancias que concurran en su celebración...”* edo jakiteko zer den abusivo, zerrenda ireki bat eman daiteke adibide gisa, 3(3) artikulua: *“el anexo de la*

*presente directiva contiene una lista indicativa y no exhaustiva de cláusulas que pueden ser declaradas abusivas”*

#### 14. Egitateak, frogaketa, kalifikazioa

##### **137. Zer esan nahi du frogatutako gertakariak sailkatu behar direla?**

Arauaren terminoetan sartu behar dela. Frogatu duzun gertakaria sartzan dela arauaren deskripzioan Araua aplikaziorako interpretatu dugunean, gatazkaren gertakariak besarkatzeko modu batean, eta beraz aplikatuko den Premisa Nagusia formulatu dugunean orduan pasatzen gara gertakariak frogatzera, eta gertakari horiek arau juridikoaren kontzeptuetan sailkatuzera.

Beraz premisa txikiak bi une desberdin ditu: 1. gertakariak frogatu eta 2. frogatutako gertakariak sailkatu arauaren kontzeptuekin bat egiteko.

##### **138. Gertakariak eta arau juridikoak zuzenbidean nahastu egiten dira ala bereizi egiten dira? Eman adibideaketa erantzunaren azalpena**

Europar Batasuneko Justizia Auzitegian epaiaurreko galdaketa dagoenean gertakariak eta zuzenbidea bereizten dira nabarmen. Hala eta guztiz ere garbi dago arauen eta gertakarien artean etengabeko elkareragina dagoela. Gure adibidean gertakariak gorroto delituaren interpretazioak markatzen ditu eta delitua interpretatuko dugu gertakariak buruan ditugularik. Xedapena interpretatzen dugu aplikazioari begira eta gertakariak sailkatzen ditugu arauaren intepretazioa gogoan dugularik. Bereziketa beraz funtzionala da, ez delako komeni araua eta gertakaria nahastea.

Gertakarien eta arauen arteko banaketa nahiko ohikoa da: epaietan bereizi egiten dira, jurisdikzioan ere bati auzitegi edo epaitegi batzuk instrukzioaz edo ikerketaz eta horretaz bakarrik arduratzen dira, epaiamahaia dagoenean, horrek gertakarien inguruan bakarrik arituko da (ad quaestionem facti non respondent iudices, ad quaestionem legis non respondent iuratores”, kasazio helegitean ezin da gertakarien inguruan aritu.

##### **139. Frogaketa fasearen urratsak auzietan**

Frogaketa fasea auzietan urrats ezberdinak ditu:

1. Frogak proposatu epaileari.
2. Onartutako frogabideak praktikatu egiten dira, egikaritu auzian, alderdi bakoitzak aukera du testatzeko, lekukoak, adituak, lekuan lekuko ikerketak, dokumentuak aztertu.
3. Frogei buruzko erabakia hartu: balio duen, zer frogatu duen, zein informazioa jo behar den frogatutzat (pisua eta preziamendua). Hemendik sortzen da egia instituzionala.

#### BALDINTZAK

Zer frogatu behar da? Errelebantzia duen guztia, auzilariak eztabaidatzen dituzten gertakariak/egitateak, zalantza sor dezaketen egitateak (auzilariak kuestionatu ez arren) eta iuris tantum presuntzio baten kontra doazen egitateak.

Zer ez den frogatu beharrik? Errelebantziarik ez duena, ezaguna dena, gauza jakina dena, frogatutako beste egitateetatik jarraitzen direnak (logikan) eta iuris tantum presuntzio batek babestutakoak (aurkako frogarik ezean).

#### **140. Zer dira indizioak (erakusleak) eta nola bereizi froga zuzenetatik?**

Indizioak, gertakariak uzten dituzten arrastroak dira. Froga zuzenak aldiz, zuzenean guk experimentatzen ditugunak.

Batzuetan gerta liteke frogak zuzen-zuzenean hartu ahal izatea, in fraganti delituetan horrela izaten da, baina ohikoan jadanik gertatu dira gertakariak eta ezagutuko dira hauek utzitako arrasto edo aztarnagatik, gehi sena, gehi ezagutza fisikoa gehi metodo logiko eta zientifikoa, baina ez baditugu esperimendu (zientzia batzuetan esperimendua da frogaketa zuzena) ez dugu izango esperientzia zuzena eta honek ematen digun ziurtasunik. Egi ofizial bat sortzen da agintea duen epaileak edo epaimahaiak gertakaria erabakitzen duenean. Egi ofiziala edo instituzionala gainera ez da kuestionatzen, ontzat joko da.

#### **141. Zertan dira antzeko eta zertan desberdin epailea eta historilaria?**

Historialariak, metodo batzuk erabiliko ditu historian gertatu dena azaltzeko, ez dauka mugarik. Epaileak, muga batzuk izango ditu egia lortzeko, hau da, metodo batzuk ezingo ditu erabili.

#### **142. Zer ez da frogatu behar zuzenbidearen aplikazioan?**

Zer ez den frogatu beharrik? Errelebantziarik ez duena, ezaguna dena, hau da, gauza jakina dena, frogatutako beste egitateetatik jarraitzen direnak (logikan) eta iuris tantum presuntzio batek babestutakoak (aurkako frogarik ezean).

Zer frogatu behar da? Errelebantzia duen guztia, auzilariak eztabaidatzen dituzten gertakariak/egitateak, zalantza sor dezaketen egitateak (auzilariak kuestionatu ez arren) eta iuris tantum presuntzio baten kontra doazen egitateak.

#### **143. "Arbola pozoitsuaren fruta" esaerak zer esan nahi du?**

Frogabideak baztertzeko erregelen barruan kokatzen da hau.

Legea urratuz lortu diren frogak esan nahi du arbola pozoituaren fruituak. Bi jarrera nagusi daude: egiaren alde kosta zein kosta eta babestutako baloreen alde.

#### **144. Frogen baloratzatze librea zer da?**

Baloratzapen libreak esan nahi du zuzenbideak ez diola froga bakoizatri balio bat ematen. Baina ez da librea edonolakoa izan daitekelako; arrazoizkoa eta arrazoitua behar duelako.

Legezko baloratzea vs baloratze librea (epailearen barne sinismena edo komentzimendua)

#### **145. Zer erlazio dago egiaren eta frogaren artean? Zuzenbideak egia bilatu behar al du? Aipatu honen inguruko teoria kontrajarriak.**

Zeren bila? Egiaren? Hiru jarrera Taruffok azalduta:



- Indiferentearena, egia sortzen da edo egia zimarru bat da (auzia beste gauza baten bila dabil, egia ez da errelebante); hemen bi kontzepzio: **narratibista** (badago egiaren xerka baina koherentzia eta errelatoaren ere bai: la plausibilidad de una narración se cifra en su coherencia) eta **erretorika** (kontsentsua bilatzen du, komeni dena aurkituko da, persuasioa da gakoa, kanpotik prejuizioa ikusi leike, ahal da baina ez da komeni kasu batzuetan, bertsio hau behar bada abokatuena da gehiago epailearena baino, baina auzitegi batzuk fiskala bezala egiten dute lan kasu batzuetan).
- Kontrakoa: ezinezkoa da egia jakitea, ezin da (eszeptizismoa) edota ez da bilatu behar beste balore batzuk direlako auziaren eta frogabideen xede, alegia gatazka konpontzen saiatzea.
- Aldekoarena: ahal da eta behar egia bilatu, baina egia hori erlatiboa da (gure ahalmena egia ezagutzeko mugatua delako eta ditugun tresnen eta frogabideen menpe dago, baina erlatiboa ere bai "egia" testuinguru batean kokatuko delako, baina bilatu behar da justizia bilatu nahi bada, veritas non auctoritas facit iudicium, gertakariak enpirikoki fragatuak eta kontrastatuak.

Lehenik eta behin jakin behar izango duguna egiaren bilaketa prozeduraren objektua izango den ala ez. Honi erantzuteko hiru ikuspegi edo arrazonamendu bereizten dira:

- 1.- INDIFERENTZIARENA: prozeduraren baitan EGIAK ez du garrantzirik.
- 2.- EGIA BILATZEAREN KONTRA DAUDENAK: Auzi batetan ez da egia bilatu behar edo eta ezin da egia bilatu.
- 3.- EGIA BILATZEAREN ALDE DAUDENAK: Egiaren alde egin behar da, egia bilatu behar da eta bilatu daitekeela esaten dute.

1.- INDIFERENTZIAREN IKUSPEGIA defendatzen dutenen artean, frogen balorazioei buruzko bi ikuspegi edo kontzepzio hauek bereiztu behar ditugu:

1. IKUSPEGI ERRETORIKOA: Egitateen egiazkotasunetik urruntzen dira, hauei interesatzen zaiena arazo baten inguruko adostasuna izanik, ontzat hartuko delako beste bati zerbaitetaz gonbentzitzeko balio duena, berdin izango zaielarik egia den zerbaitetaz gonbentzitzea edo gezurra den zerbaitetaz gonbentzitzen bada, azkenean garrantzia duena bestea gonbentzitzeko balio duena izango da.  
Irizpide honen arabera, frogen balorazioak ez du gertatutakoa benetan zer izan den bilatzen, helburua honakoa da: argumentu egokiak erabiliz epaileak gonbentzitu behar ditu alderdiak epaia emateko erabilitako argumentazio egokia izan dela, hau da, epaileak alderdiei modu egokian jardun dela sinestarazi behar die.
2. IKUSPEGI NARRATIBISTA: Epaileak Sententzia batetan egitateen narrazioa egiten duenean, proposatu eta praktikatu diren frogabideak kontutan hartuz gertakariaren azalpen bat egiten du. Gertakari horiek egiarekin bat datozen ala ez ez du garrantzirik, hau da, Epaileak "frogatutako " gertakari horiek egiazkat hartuko ditu baina horrek ez du esan nahi egia hutsa direnik. Epailearen narrazio hura koherentea izatea eskatzen da, baina ez da unkanbehar bat izango bere narrazio hura "egia" izan behar dela esatea.

2.- EGIA BILATZEAREN KONTRA agertzen direnak, hau da, hauek esaten duten frogek ez dutela egia bilatzen. Hauen artean ere ikuspegi ezberdinak badaude:

1. Egia lortzea EZINEZKOA dela uste dutenak: Prozesuen akats eta mugetan oinarrituz esaten dute Epaileek ez dituztela beste zientzilari batzuek dituzten teknika, medioak ezta denbora ere arazo bat aztertu eta miatzeko eta beraz egoera horretan ezinezkoa dela "egia" zein den zehaztea.
2. Egia lortzea lortu beharreko helburua ez dela esaten dutenak: Hauentzat prozesu guztietan helburu nagusia arazoak konpontzea izan behar da, eta beraz arazoa konpontzea kontrajarriak diren

alderdien interesen artean oreka bat lortzean datza, eta beraz hauen arabera “Egiak” ez du alderdien interesen orekan inongo baliorik.

Ikuspegi honen aldeko beste iritzi batek dio, alderdiek auzi batetan borrokatzen dutenean ez dutela egia bilatzen, garaipena baizik. Epaileek planteatzen zaizkion egitateen artean erabaki behar duenez, berdin zaio zein izan den benetako egitateen edo gertakarien eraikuntza.

**3.- EGIA BILATZEAREN ALDE DAUDENAK eta HORI POSIBLE DELA USTE DUTENAK:** Lehenik eta behin aipatu behar dugu hemen EGIARI BURUZ hitz egiten dugunean egi erlatibo bati buruz hitz egiten dugula bi zentzutan:

1. Egi erlatiboak dira ezagupenerako alderdiek eta epaileek dituzten medioak ere mugatuta daudelako.
2. Egi guztiak erlatiboak dira bere testuinguruan.

Baina horretaz gain, egia ez da soilik posiblea, gainera lortu behar den zerbait ere bada, bi arrazoiengatik batez ere esan ohi da egia lortu behar dela:

1. Prozeduran erabaki justuak lortu behar direla esaten da, eta beraz ezin izango dira justuak izan frogaren balorazio akasdunean oinarritzen diren erabakiak. Egitateen egiazkotasuna, epaileen erabakiak justutzat hartzeko baldintzatzat ezartzen da.
2. Egitateei buruzko egia zein den ezartzea prozedura bermatzeko, hau da, egirik gabeko Justizia batek sistema arbitrario bat bermatzen du.

#### **146. Zer esan nahi du arrazoizko zalantza izpitik haratago frogatzea?**

Arrazoizko zalantza izpitik haratago frogatzea, beharrezko froga gehiago lortzea edo nahi izatea izango litzateke.

*Beyond reasonable doubt*, arrazoizko zalantza izpitik haratago, alegia, kontsistentzia edo kontraesanik ez; osotasuna eta koherentzia.

#### **147. Frogaketa eta puzzlearen metafora azaldu**

Nahiz eta froga batzuk onuragarriak izan daitezkeen, batzuetan ez dira baliozkotzat hartuko froga batzuk; izan ere, hauek ez dira bide egokiaren bidez lortu: “ahaztu pieza eta puzzlea bota”. Beraz, oso garrantzitsua da zuzenbidearentzat informazioa eta frogak ezagutzea. Hori da bere funtsa. Beraz, frogatu behar dena da errebantzia duen guztia, hau da, puzzlea osatzen laguntzen duen oro, beti ere arauen bidetik.

Zergatik da baliagarria? Pieza batzuk bakarrik erabili daitezke irudia sortzeko. Zeintzuk dira pieza horiek? Frogatutzat jotzen dituzun piezak dira hauek, horiekin osatzen da irudia. Baliteke horiekin ezin izatea deduzitzea dena. Pieza batzuk baliteke ezin izatea erabiltzea, zuzenbidea urratuz lortu direlarik pieza horiek. Pieza batzuekin ondoriozta dezakezu irudia nolakoa den pieza guzti guztiak izan gabe.

Aldi berean, auzilariak ematen duten informazioa frogatu behar da, alegia informazio hauen arteko kontraesanak eta kontradikzioak aztertu behar dira.

Aldiz, presuntzioa ez da frogatu behar. Ez da frogatu behar errebantzia ez duen ezer. Aldi berean, gauzak jakinak badira ez dira frogatu behar.

#### **15. Ondorioa**

## 148. Silogismo judiziala azaldu.

Zuzenbidearen aplikazio judizialaren kontrolak

Zeren kontrola

- Kontrola: orokorra, aplikazioarena, silogismoarena
- Kontrola: erabaki bakoitzarena (kontrol materiala)

Behin gertakariak finkatu direnean (behin egia instituzionala adierazi den) eta gertakari horiek arauaren aurrebaldintzaren kategorietan sailkatu denean, ondorioa modu logiko batez atera daiteke, silogismo baten emaitza bezala.

A baldin bada orduan O jarraitzen da  $A \rightarrow O$  p  $\rightarrow q$  a  
bada a p.

o o q

Silogismo hau irudika daiteke esakuneen logikan (goian bezala) edo predikatuen logikan, horrela

$\forall x, Gx \rightarrow Ox$  (x guztientzat, x G baldin bada, orduan O aplikatzen zaio x-i)

a (a frogatutzat jo da, egia instituzionala)

(Ga) (frogatuta dagoen a hori G bezala sailkatzen da) Oa

(frogatuta dagoen a horri o ondorioa aplikatzen diogu)

Orain hobeto ulertzen dugu aplikazioaren eskema:

A gertakariak frogatutzat jotzen direnean, O ondorioa aplikatuko zaie. Epaileak O ondorioa aterako du A (arauaren aurrebaldintzak aurrikusitako) gertakarien ezaugarriak direnean, epaileak edo auzitegiak arauak aurrikusitako ondorioa aplikatuko die. x, y eta z gertakariak frogatutzat jo ditu epaile, epaimahai edo auzitegi batek eta epaileak edo auzitegiak erabaki du frogatutako gertakari horiek A bezala sailkatu edo kalifikatu daitezkeela. Orduan epaile edo auzitegi horrek o ondorioa aplikatuko die gertakari horiei.

Ondorioari buruzko erabakia hainzuzen ere O ondorio hori nolakoa den aztertzen du. Askotan ondorioa ez da hain sinplea. Arau juridikoen (xedapenetatik eratorritako arauen) aurrikusten duten ondorioa ez da beti bat eta bakarra izaten. Arau batzuek aurrikusten dute ondorio juridiko zehatz bat eta bakarra (mila euroko isuna), baina beste batzuek ondorio mailakatu bat aurrikusten dute (hiru urtetik sei urte bitarteko espetxe zigorra), edo ondorio zehazgabea (kalte-ordaina "egokia"). Ondorio posiblea bat eta bakarra denean zuzenbidea aplikatzen duen organoak ez dauka diskrezio eremurik, lotuta dago guztiz. Ez dugu esan nahi automatikoa denik, baina erabakian ez dagoela tarterik. Erregela batek esaten badu "kalte material bat sortzen duenak kalte horren munta ekonomikoa ordaindu behar du", galdera da jakitea zein den munta hori (peritajea ere beharrezko izan daiteke). Baina gauzaren munta edo prezioa esan beharrean kalte-ordain "egokia" esango balu, orduan aplikatzaileak diskrezio tarte izango luke (erabaki lezake zein den balio ekonomikoa, baina baita ere kalte morala, edo bestelakoak).

## 149. Arauak aurrikusten duen ondorioa bat eta bakarra da, ez dago horren inguruan eztabaidarik. Egia ala faltsua

Faltsua, posible da ondorio bat baino gehiago egotea. Gainera, ondorio batzuk balorezkoak izan daitezke eta horiek ere interpretatu egin behar dira.

Ondorioari buruzko erabakia hainzuzen ere O ondorio hori nolakoa den aztertzen du. Askotan ondorioa ez da hain sinplea. Arau juridikoen (xedapenetatik eratorritako arauen) aurrikusten duten ondorioa ez da beti bat eta bakarra izaten. Arau batzuek aurrikusten dute ondorio juridiko zehatz bat eta bakarra (mila euroko isuna), baina beste batzuek ondorio mailakatu bat aurrikusten dute (hiru urtetik sei urte bitarteko espetxe zigorra),

edo ondorio zehazgabea (kalte-ordaina "egokia"). Ondorio posiblea bat eta bakarra denean zuzenbidea aplikatzen duen ordanoak ez dauka diskrezio eremurik, lotuta dago guztiz. Ez dugu esan nahi automatikoa denik, baina erabakian ez dagoela tarterik. Erregela batek esaten badu "kalte material bat sortzen duenak kalte horren munta ekonomikoa ordaindu behar du", galdera da jakitea zein den munta hori (peritajea ere beharrezko izan daiteke). Baina gauzaren munta edo prezioa esan beharrean kalte-ordain "egokia" esango balu, orduan aplikatzaileak diskrezio tarte izango luke (erabaki lezake zein den balio ekonomikoa, baina baita ere kalte morala, edo bestelakoak).

### **150. Zer da ondorioaren erabakiari buruzko diskrezioa? Adibideren bat eman**

Zuzenbideak ondorio bat baino gehiago edo ondorio mailakatua aurreikusten duenean diskrezioa azaltzen da, zabalagoa ala estuagoa, arauen arabera, zuzenbideko arauak beraiek edo juristen artean errezagutzen diren beste arau ez-formalek diotenaren arabera. Zuzenbide penalean esate baterako, aplikatzaileari agintzen zaio ekintzaren inguruko baldintza zamagarriak edo aringarriak kontutan hartzeko. Nahiko zehaztuta izaten da arlo penalean ziurtasun juridikoa (lex certa) printzipioagatik, "nula poena sine lex certa et previa". Baina beste arloetan, zibilean, adibidez ez du zertan zehazki aurreikusia izan behar. Pentsatu adibidez pentsio osagarriak, haurren zaintza edo bisiten erregimena..dibortzio kasuetan.

## **16. Kontrola eta bidezkotzea**

### **151. Zein da erabaki judizialaren gutxieneko kontrol razionala?**

Bidezkotze formal-logikoa: ondorioa onartutako premisetatik eratorri da. Bi irakurketa, bidezkotze logiko bortitza: ezin da beste ondoriorik atera onartutako premisetatik, ala bidezkotze logiko gutxienekoa: gutxienez ondorio hori eratoritzen da (nahiz eta beste ondorio batzuk ere erator zitezkeen) – HAUXE DA GUTXIENEO KONTROL RAZIONALA

### **152. Nola bereizi erabaki judizialaren kontrol formal-logikoa eta kontrol materiala?**

Bidezkotze modu desberdinak:

- Formal-logikoa: ondorioa onartutako premisetatik eratorri da. Bi irakurketa, bidezkotze logiko bortitza: ezin da beste ondoriorik atera onartutako premisetatik, ala bidezkotze logiko gutxienekoa: gutxienez ondorio hori eratoritzen da (nahiz eta beste ondorio batzuk ere erator zitezkeen) – HAUXE DA GUTXIENEO KONTROL RAZIONALA
- Materiala: erabaki bakoitza bidezkotuta dago, motibazioa dago premisa bakoitzaren atzean: aplikagarri den arauaren hautaketa, baliozkotasunaren erabakia, interpretazio erabakia, ebidentziazko erabakia edo frogaketa erabakiak, sailkapena erabakia, ondoriozko erabakia. Gutxienekoa: aplikagarri den arauaren formulazioa (premisia nagusia) eta ebidentziazko erabakia, baina honek oso bidezkotze ahula ematen digu, erabaki guztiak bidezkotu behar dira, eta ez halamoduz, baina arrazoi onez: horixe da bidezkotzea: ERABAKIAREN ALDEKO ARRAZOI ONAK BATEZ ERE ERABAKITZEKO AUKERA DESBERDINAK DAUDENEAN (diskrezioa dagoenean) diskrezioa – askatasuna –bidezkotzea Horixe da hirukotea.

### **153. Erabakiaren kontrola, aurkikuntza eta bidezkotze alderdiak azaldu**

Erabakien kontrolak 2 motatakoa izan daitezke: instituzionala eta ez instituzionala.

- Instituzionala: Barruko jurisdikzio sistemak egiten duena
- Ez instituzionala: barruko jurisdikzio sistematik egiten ez dena, esaterako, iritzi publikoaren bitartez egiten dena, juristen kontrola, epaileena hiritar posizioan kokatzen direnean...

Kontrolak logikoa eta arrazionala izan behar du, epaia gatazka baten konponketa izan den momentutik kontrola dezakegu, adibidez, hiritar bezala, kontrola gauzatu dezakegu, eta agian ados ez bagaude, presio eta arrazoia lortuz alda dezakegu.

Kontrola, barneko kontrol instituzionala dagoenean eta helegitea tartekatzeko epearen arabera egin izan ahalko dugu, epaitu eta aste batzuetara alegia.

Erabakia bidezkoa izateko 2 alderdi bete behar ditu: Prozesua logikoa izatea eta azpi erabaki guztiak justifikatuak egotea. Hau horrela ez bada, ez da erabaki bidezkotzat hartuko, 2 alderdi hauek beteta soilik izan dezake epaiak zuzena.